# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2002ko apirilaren 19a • III. urtea • 61. zenbakia • DOAN BANATZEKOA


**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




## EZTABAIDA: EMAKUMEEN AURKAKO TRATU TXARREKIN AMAITZEKO, ZER EGIN DAITEKE? /7



**Goienka2a**

**'Umorea literaturan' Mondragon Unibertsitatean**

**KULTURA**

**Debagoieneko hiru musika taldek diskoa kaleratu berri dute /15**

**ENERITZ IBARGUREN**

*"Bizi zen egoera jasanezinari irtenbidea topatzeko egin dute estatu-kolpea Venezuelan"* **/8-9**

### OÑATI

## Mugarik gabeko greban segitzen dute San Martin zaharren egoitzako langileek

Amaiera jakinik gabeko greban segitzen dute astelehena ezkero Oñatiko San Martin zaharren egoitzako langileek. Lan-hitzarmena sinatzea eskatzen dute langileek. San Martin egoitzako Zuzendaritza batzordearen ustez, berriz, lan-hitzarmen hori ez dagokie San Martineko 14 langileei. Greba egiteaz gainera, beste hainbat protesta ekitaldi egiten ari dira langileak egun hauetan.

### BERGARA

## Adimen urritasuna dutenendako eguneko zentroa zabaldu berri dute Bergaran

Adimen urritasun larriak dituztenendako eguneko zentroa zabaldu dute oraingo astean Bergarako Espoloi kalean. Gipuzkoako gaixo horiekin lan egiten duen Uliazpi Fundazioak zabaldu du eguneko zentro hori, eta Debarroko adimen urrikoek erabili ahal izango dute. Hogei lagunendako tokia egongo da. **/4**

### ARRASATE

## Etxean erabilitako olioak batzen hasiko dira datorren egubakoitzetik aurrera

Apirilaren 26tik aurrera etxean erabilitako olioak batzen hasiko dira Arrasaten. Helburua da olio horiek, harraskatik bota beharrean, batzea eta birziklatzea. Izan ere, harraskatik botatzean eragiten dugun kutsaduraz gain, arratoien ugaltzea ere bultzatzen dugu; arratoiak, besteak beste, olioarekin elikatzen dira-eta. **/5**

### ESKUALDEETAKO ABERE-HILTEGIAK AZTERGAI

# Zer egin Zubillagako abere-hiltegiarekin?

Aspalditik ari gara gauza bera entzuten: Debagoieneko hiltegiaren etorkizuna ez dago batere argi. Eta eztabaida hori indartu egin da azken egunotan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzarekin batzarra izango dute Euskadiko hiltegi mankomunatuek; Jaurlaritzak berak sakrifizioaren sektorearen gaineko txosten informatibo bat plazaratu du; eta Batasuna alderdiak bere iritzia jakinarazi du.

Zubillagako hiltegia Erkidegoan dauden lau hiltegi mankomunatuetariko bat da, Tolosako, Durangoko eta Iraetako hiltegiekin batera. Hainbat arazo ditu, baina arazo horiek ez dira hiltegi zehatz batenak bakarrik, sasoi bateko sistema jarraitzen duen sektore oso batenak baizik. **/2-3**



ENEKO AZKARATE

## Errenta aitorpena, bide onetik

Aparteko ilararik sortu barik doa errenta aitorpena egiteko kanpaina. Debagoieneko bulegoa Bergaran dago, eta joan den astelehenean hasi zuten, Gipuzkoa osoan moduan, errenta egiteko kanpaina. Ekainaren 25era arte iraungo du. Egunero 180 bat errenta aitorpen egiten dituzte Bergaran, eta kanpainak iraungo duen hiru hilabeteetan, 12.000 baino gehiago egingo dituzte. Aurten, hasieratik jende dezente hurbildu da errenta aitorpena egitera. Bulegoa 08:00etatik 13:45era dago zabalik.







HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Hiltegia, ber

## *Debagoieneko hiltegiaren etorkizuna kolokan dago:*

LEIRE KORTABARRIA

Aspalditik ari gara gauza bera entzuten: Debagoieneko hiltegiaren etorkizuna ez dago batere argi. Eta eztabaida hori indartu egin da azken egunotan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzarekin bilera bat izango dute Euskadiko hiltegi mankomunatuek; Jaurlaritzak berak sakrifizioaren sektorearen gaineko txosten informatibo bat plazaratu du; eta Batasuna alderdiak bere iritzia jakin arazi du.

Oñatiko Zubillaga auzoko hiltegia Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lau hiltegi mankomunatuetariko bat da, Tolosako, Durangoko eta Iraetako hiltegiekin batera. Hainbat arazo ditu, baina arazo horiek ez dira hiltegi zehatz batenak bakarrik, sasoi bateko sistema jarraitzen duen sektore oso batenak baizik. Eztabaida ez da Debagoieneko hiltegiaren gainekoa, baizik eta modu horretara lan egiten duten hiltegien jarraipenaren gainekoa.

**BI EREDU KONTRAJARRI**

Debagoieneko hiltegia zerbitzu publikoa da, eta udalek partida bat ipintzen dute urtero hori mantentzeko. Kontua da, alde batetik, zaharkitua dagoela, orain dela hogei urte eraiki zutelako; eta, bestalde, galera handiak dakartzala: iaz, 14 milioiko galerak izan zituen, eta aurten, 31 milioi aurrez ikusi zituen Mankomunitateak. Hiltegiko arduradunak dioenez, gestioa "ezin hobea" izan da urte hauetan guztiotan; hortaz, arazoa beste nonbait topatu behar.

Koska lan eredua, sektorea egituratua dagoen modua izan daiteke. Hori da orain pil-pilean dagoen debatea, ez bakarrik Euskal Herrian, baizik eta Europa osoan.

Bi eredu kontrajartzen dira. Alde batetik, Europan eta Espainian gero eta indar handiagoa hartzen dabilen eredua dago. Horren arabera, hiltegiak enpresa pribatuak dira, eta gero eta handiagoak, gainera. Euren ezaugarri bereizgarria da produktua hasi eta bukatu egiten dutela: abeltzainarengandik hartzen dituzte abereak, eta sakrifikatu ondoren, produktu bukatua ere eurek egiten dute, eta hori da harategietara iristen dena. Hiltegi handi horiek gero eta indartsuagoak dira, eta gero eta lan ahalmen handiagoa dute; gainera, ekonomia globalizatuaren merkatuan, gero eta gehiago aurkitzen dugu gure dendetan Europako bazter guztietako okela.

Beste aldetik, gaur egun Debagoieneko hiltegiak irudikatzen duen eredua dago. Eredu horretan, hiltegiak zerbitzu publikoak dira, eremu txiki bat hornitzeko lan egiten dutenak. Hori da Oñatiko hiltegiaren funtzionamendua: "Abeltzainak eta harakinak tratua egiten dute, eta abeltzainak harakinarekin adostutako abere kopurua ekartzen digu. Guk hil, garbitu eta agindutako lekura banatzen dugu, eta hildako kilo kopuruaren arabera kobratzen dugu", azaltzen du Fermin Galdosek, arduradunak.

**ETORKIZUNERAKO AUKERAK**

Lekuko eredu horren krisiarengatik arduratuta, hiltegiek eurek egoeraren gaineko txosten bat eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari. Txosten horrek argi eta garbi uzten zuen, teknikarien ustez, Debagoieneko hiltegiaren eredua ez dela bideragarria izango etorkizun hurbilean. Hala ere, Jaurlaritzak berak ezin du hiltegirik itxi; hori Mankomunitate bakoitzaren erabakia da. Bestalde, Batasuna alderdiak uste du hiltegiak zerbitzu publiko izaten eta laguntza ekonomikoak jasotzen jarraitu beharko luketela.

Hiltegiak kudeatzen dituzten lau euskal mankomunitateek honako aukerak dituzte: hiltegiak itxi eta berriak egin, orain arte moduan jarraitu, hiltegiak goitik behera berritu, edo hiltegi guztiak itxi eta guztiendako hiltegi bakarra eraiki.

*"Debagoieneko hiltegiaren gestioa ezin hobea izan da: arazoa beste nonbait topatu behar da"*

*"Euskadiko lau hiltegi mankomunatuek bilera izango dute Jaurlaritzarekin"*

*"Jaurlaritzak bideraezin jotzen du Debagoieneko hiltegiaren eredu ekonomikoa"*



**Zubillagako hiltegian behiak, ardiak eta zaldiak sakrifikatzen dituzte, eta 2.300.000 tona okela**

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24

ZURE AMETSETAKO ETXEA!

- Besaulki eta sofa etzangarriak
- Besaulki altxagarriak
- Latexezko edo tempurrezko koltxoi anatomikoak
- Doitasunezko somierrak, elektrikoak eta eskuzkoak.

# rritu edo hil

## bi ekoizpen ereduren artean aukeratu beharko du



L.K.

inguru ematen du urtero.

### Iaztik datorren eztabaida

**Debagoieneko hiltegiaren etorkizuna kilikolo dago, eta gure Mankomunitateko arduradunak hiltegiak kudeatzen dituzten Erkidegoko beste hiru mankomunitatekoekin elkarrizketetan dabiltza, irtenbide baten bila.**

**Baina hiltegi mankomunatuen arazoa, oro har, eta Debagoienekoarena, hain justu ere, aspalditik dator. Hasiera baten, Fermin Galdos Debagoieneko hiltegiko arduradunak dioenez, "hogei urtez funtzionatzeko eraiki zuten hiltegia". Epe hori betetzear zegoenean, 2001eko apirilean, hainbat aukera aztertzen buru-belarri sartu zen Mankomunitatea. Maiatzean, hiltegiaren kudeaketaz arduratzeko lehiaketa deitzeko asmoa ere izan zuen, erakunde pribatuen eskaintzen esperoan; baina azkenean, erabakia atzera bota zen. Une hartan, ixtearenak aldeko jarrerak zituen; baina otsailean aurrera jarraitzea erabaki zen.**

ZEINTZUK DIRA AUKERA BIDERAGARRIENAK?
### Aukera gehien eta gutxien dituzten proposamenak

Zubillagako hiltegia berritzeko aukera ez da batere bideragarria. Oso garestia izango litzateke: hiru milioi euro inguruko aurrekontua izango luke. Galdetutako guztiek diote seguruenik lau hiltegi mankomunatuak itxi egingo dituztela eta bakarra eraikiko dutela eskualde horietarako: Bergara, Abadiño... entzun dira. Bestalde, Debagoieneko hiltegiko arduradunak lan egiteko modua guztiz aldatzearen aldekoak dira, eta produkzio kate osoa, abeltzainarengandik harategira arte, eurek osatu. Horrek, euren iritziz, balioa gehituko lioke produktuari, eta galerak murriztu egingo lituzke, gutxienez.

EUSKO JAURLARITZAK PROPOSATZEN DUENA
### Espezializazioa eta lehiakortasuna

Eusko Jaurlaritzak, euskal hiltegietako arduradunek eskatuta, sektorearen egoeraren gaineko txostena egin zuen. Gobernuak ez du inongo erabakirik hartuko hiltegiek jarraitu beharreko bidearen gainean. Hala ere, euren gomendioa da hiltegiak pribatizatzea eta enpresa bilakatzea, Europatik datorren okelaren konpetentziari aurre egiteko. Lakuaren ustez, hemengo hiltegiek espezializazioan, bertako produktua bultzatzean eta, batez ere, merkatu eredu lehiakorrean sartzean izan beharko lituzkete euren etorkizunaren oinarriak.

BATASUNAK PROPOSATZEN DUENA
### Eskualdeko hiltegiei eta izaera publikoari eutsi

Martxoaren 14an, Batasunak Gipuzkoako hiltegiendako proposamen bat kaleratu zuen. Horren arabera, hiltegiak zerbitzu publikoa izaten jarraitu beharko luke, eta errentagarritasunaren irizpidea alde batera utzi beharko litzateke. Euren ustez, eskualdeetako hiltegiek okela kalitate hobea, osasun berma handiagoak (bertako okela besterik ez litzatekeelako hilko lekuko hiltegietan), nafarmina edo *behi eroen* antzeko epidemien aurkako segurtasuna, abel esplotazioen jarraipena… eskaintzen dituzte. Hori dela eta, Foru Aldundiari 30.000 euroko inbertsioa proposatu zioten.

**GERMAN BEREZIBAR**
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Durangaldeko Mankomunitateak batzarra egiteko asmoa du hilaren 24an, eta euren jarrera jakiteko zain gaude hiltegiak kudeatzen ditugun lau mankomunitateak, Gasteizera jotzeko. Ikusi egin behar zer gertatzen den. Hemengoak martxan segituko du, harik eta erabaki komun hori hartu arte.

Zubillagako hiltegia berritzea garestiegia izango litzateke. Berria egitekotan, guztiz desberdina izan beharko litzateke, baita kudeaketa aldetik ere.

*"Hiltegi berria egingo balute, guztiz desberdina izan beharko litzateke"*

**MAITE ARISTEGI**
EHNE SINDIKATUKO PRESIDENTEA



Hiltegi bat hurbil izatea ezin garrantzitsuagoa da, ez bakarrik baserritarrondako, baizik eta baita kontsumitzaileendako ere. Kostu baxuagoak dakartza, kalitatea hobeto kontrola daiteke, bertako okela ekoiztea errazten du, eta multinazionalen aurka babesten gaitu. Gainera, hiltegiak zerbitzu publiko izaten jarraitu beharko luke, eta erakunde publikoen inplikazioa beharko litzateke aurrera ateratzeko. Gure ustez, Debagoieneko hiltegiaren aldeko apustua egin beharko litzateke, eta kezkagarria da horren gaineko zalantzak agertzea.

*"Hurbiltasuna ona da, baserritarrondako eta kontsumitzaileendako"*

**FERMIN GALDOS**
HILTEGIKO ARDURADUNA

Debagoieneko hiltegikook Mankomunitateak esan diguna besterik ez dakigu. Hiltegi hori hogei urtez funtzionatzeko asmoz egin zen, eta hogei urteak bete ditu; orain, ez dakigu zer gertatuko den. Gainera, 75.000 laguni zerbitzua emateko egin zen, eta gaur egun, ezin dezakegu ekoizten duguna baino gehiago ekoiztu. Zer egin, hori erabakipolitikoa izango da. Garaiekin bat joan behar dugu, eta berritu edo hil, hori gertatzen da hemen. Berritzekotan, goitik behera egin beharko litzateke.

Edozelan ere, hiltegiak gestio ezin hobea izan du, eta osasun arau guzti-guztiak betetzen ditu; alde horretatik, ez dugu inongo arazorik izan inoiz.

*"Hiltegiarekin zer egin, hori erabaki politikoa izango da"*

**JOSE RAMON OTAMENDI**
HARAKINA



Ez dakit zein izango den Debagoieneko hiltegiaren egoera ekonomikoa, baina nire iritziz, behintzat, argi dago ez dabilela behar bezain ondo eta zerbait aldatu behar dutela, kudeaketa-edo… Guri zerbitzu ona egiten digute, bai, baina guztiok entzun eta irakurri izan dugu arazo handiak dituela: galerak dituela, zaharkituta dagoela… Hango langileek astean lau egunez lan egiten dute, ordutegi finkorik gabe, eta ezin diete egiten dutena baino gehiago eskatu.

*"Zerbitzu ona ematen digute, baina entzuten da arazoak dituela"*



ENEKO AZKARATE

Bergarako Espoloi kalean dago oraingo astean zabaldu duten Uliazpi Fundazioaren eguneko zentroa.

# Adimen urritasunak dituztenendako eguneko zentro berria zabaldu dute

*Bergaran zabaldu dute eta Debarroko gaixoendako izango da*

ENEKO AZKARATE

Adimen urritasun larriak dituztenendako eguneko zentroa zabaldu dute oraingo astean Bergarako Espoloi kalean. Gipuzkoako gaixo horiekin lan egiten duen Uliazpi Fundazioak zabaldu du eguneko zentro hori, eta Debarroko adimen urrikoek erabili ahal izango dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako fundazioa da Uliazpi, eta Bergarakoarekin lau etxe ditu Gipuzkoan; beste hirurak, Donostian, Zizurkilen eta Hondarribian. Bergarakoan hogei lagunendako tokia egongo da eta 10:30etik 17:30ak arte egongo da zabalik. Astelehenean zabaldu zuten eguneko zentroa, eta horren gainean etxe bat egokitzeko asmoa dute, hamar bat lagunendako modukoa. Etxe hori, baina, uda ostera arte ez dute zabalduko. Uliazpiko arduradunen esanetan, 203 lagunek dute adimen urritasuna Gipuzkoan, hau da, biztanleriaren %0,8. Gaixo horiei eta euren senideei zerbitzu egokia ematea da fundazioaren helburua.



## Arazoak autobidean

Soraluze eta Maltzaga arteko autobideko zatian egiten dihardute zubi-bideetako baten arazoak izan dituzte. Irure auzoko zubi-bidean hormigoizko 40 metroko zutarriak konpontzen ibili dira azken hilabetean. Zutarriak hormigoiarekin betetzerakoan hutsuneak agertu dira, eta hormigoi berezia erabili behar izan dute hutsuneok betetzeko. /E.A.

**BAILARAN** LABUR

## Fagor Elektratresnak eta Eroski saritu dituzte, ingurumena zaintzen dutelako

Ingurumena zaintzen duten enpresak saritu ditu oraingo astean Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak. Eta enpresa sarituen artean, Debagoieneko bi daude: Fagor Elektratresnak eta Eroski kooperatibak, hain justu. Fagorrek lehenengo saria jaso du, Fuchosa eta Ona enpresekin batera. Eroski taldeak, ostera, accessita, Cadagua eta Daisalux enpresek bezala. Europako Batasunak bultzatzen ditu sari horiek, eta Jaurlaritzak antolatzen ditu hemen. Sarion helburua da enpresen hazkundea eta ingurumenari errespetua bultzatzea. /ENEKO AZKARATE

## Debagoieneko Gurutze Gorriak 1.500 euro batu ditu herrietan jarritako itsulapikoetan

Iaz, azaroan eta abenduan egindako diru bilketari esker, Sorospen ikastaroa antolatu ahal izango du Debagoieneko Gurutze Gorriak. Hain justu, 1.483 euro batu zituzten, herriz herri, tabernetan eta dendatan jarritako itsulapikoetan. Arrasaten 966 euro batu zituzten; Bergaran, berriz, 454; Oñatin, 26; Aretxabaletan, 23, eta Eskoriatzan, 14. Batutako diruarekin, Sorospen ikastaroa antolatu gura du Gurutze Gorriak. Ikastaroa Arrasateko Institutuan egingo dute, datorren astelehenean hasi eta maiatzaren 10a bitartean, astelehenetik egubakoitzera, 19:00etatik 21:00etara. Interesa duenak 943 76 55 76 telefonora deituta eman dezake izena. Prezioa: 60 euro. Lortu gura dute edozein unetan gerta litekeen edozein larrialdi uneri aurre egiteko gaitasuna izatea. /E.A.

## Adimen urritasuna dutenei laguntzeko kanpaina abiatu du Atzegi elkarteak

Atzegi elkarteak oraingo astean aurkeztu du adimen urrikoei laguntzeko kanpaina. Arazo hori dutenak gizartean hobeto integratzea du helburu kanpaina horrek, eta horretarako, arazo hori dutenekin harremanak bultzatu gura dituzte. *Aizu, Mikel naiz* da kanpainaren leloa. 10.000 kartel eta eskuorri banatuko dituzte Gipuzkoa osoan goiburu horrekin. Adimen urritasuna duten 1.861 lagun atenditzen ditu Atzegi elkarteak, eta horretarako, ezinbestekoa da 12.370 Atzegizaleren laguntza. Kanpainarekin, Atzegizale berriak lortu gura dituzte. /E.A.

## Alzheimerra dutenen senideen elkarteak autolaguntza taldea jarriko du abian

Datorren eguenean, apirilaren 25ean, jarriko dute abian alzheimer gaixotasuna dutenen senitartekoendako autolaguntza taldea. Arratsaldeko lauretan hasiko dituzte batzarrak, Afagi elkarteak Mondragoeko ibiltokiko 3.ean duen egoitzan. Alheimerra dutenen Gipuzkoako senitartekoak batzen dira Afagin, eta Debagoienekoek Mondragoen dute egoitza. Taldekide izan nahi dutenak egubakoitz arratsaldeetan egoitzatik pasa daitezke edo, bestela, 655 71 18 37 telefonora dei dezakete. /E.A.

## Hego Euskal Herriko traumatologoak Mondragoen elkartuko dira zapatuan

Sorbaldako arazo traumatiko eta degeneratibo larriak izango dituzte aztergai oraingo zapatuan, Mondragoeko San Juan de Diosen, Hego Euskal Herriko traumatologoek. Hainbat mahai-inguru eta hitzaldi izango dira goizean barrena, eta bertan, Hego Euskal Herriko traumatologo ospetsuenek hartuko dute parte. /E.A.

ARRIETA & SAN MIGUEL
API
INMOBILIARIA-AGENTZIA
• Urkulu inguruan BASERRIA salgai.
• Arrasaten, Ferrerias kalean, 135m², lau logela, komun bi, trastelekua, garajea.
• Aretxabaletan, 50 m², bi logela, guztiz berrizteko. Prezio interesgarria.
Tel : 943 71 17 81 • Fax: 943 79 20 54
Iturriotz kalea 23 • ARRASATE
e-mail: inmo@arrietasanmiguel.com • www.arrietasanmiguel.com

Arigara S.L.
Iturgintza
ag
• Iturgintza
• Berogintza
• Gasa
• Bainu altzariak
• Hormigoi zulaketa
Olarte 11 behea • ARRASATE
Tel : 670 89 35 57 • Faxa : 943 79 24 25

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
943 71 48 45
607 94 89 84

ARAMAIO

## Manex Agirre hirugarren bertso txapelketako finalaurrekoan

Manex Agirre gazte aramaioarrak hirugarren postua eskuratu zuen zapatuan Aramaion jokatu zen Arabako Bertso Txapelketako lehenengo finalaurrekoan. Manexekin batera beste bost bertsolari aritu ziren. Tartean beste aramaioar bat ere bazen: Andere Arriolabengoa. Seigarren postua lortu zuen Anderek. Orain, bata zein bestea Araian jokatuko den finalaurrekoaren emaitzen zain daude. Izan ere, bi finalaurreko horietan sailkatzen diren sei bertsolarik parte hartuko dute txapelketako finalean. /UBANE MADERA

ANTZUOLA

## Sagastin etxe multzo berria eraikitzeko bazkide bila hasi da Udala

Antzuolako Udal Etxegintzak Sagastin etxe multzo berria eraikitzeko asmoa dauka. Etxe multzo hori eraikitzeko bazkidea topatzeko, lehiaketa egingo du orain Udalak. Horixe erabaki zuten joan den eguenean egindako osoko bilkuran. Aldizkari Ofizialean lehiaketa horretarako deialdia argitaratzen dutenetik, 26 eguneko epea izango dute aurkezteko, hala nahi duten enpresek.

Bestalde, etxebizitza erosteko izena emateko epea zabaltzen dutenean jakinaraziko du Udalak. /AINTZANE IRIZAR

ELGETA

## Butano-bonbonaren postura domeka goizean izango da, 10:30etik aurrera

Uste zena baino oihartzun handiagoa izan du hasieran lagun arteko postura zenak. Horren adibide garbia GOITBko eta ETBko *Sorginen Laratza* saioko kamerak, Elgetan izango dira-eta postura grabatzen.

Eguraldiak laguntzen badu, 25 kilo pisatzen duen butano-bonbona betea gainean hartuta, Etor Sarasua goizeko hamar eta erdietan irtengo da Abeletxeren txabolatik. Intxortara igo ondoren, Asentzioko Gure Borda Elkarteraino heldu beharko da 45 minutu bete aurretik. /OXEL EROSTARBE




MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Herriko kaleak garbitzeaz arduratzen diren Cespa enpresako langileek iragarri dute astelehenean mugagabeko greba hasiko dutela

Enpresako zuzendaritzarekin lan-hitzarmena negoziatzen ari dira, eta hortxe jasotako bi punturen gaineko desadostasunak eragin du greba, Izaro Aperribai langileen ordezkariaren esanetan. Batetik, jaiegun berezietarako derrigorrezko txandak ezarri nahi ditu enpresak. Jaiegun berezi horiek, besteak beste, urtarrilaren 6a edo Mendekoste jaietako domeka dira, urtean zazpiren bat. Langileek txanda boluntarioak nahi dituzte. Horrez gain, domekak eta jaiegunak libratzen hastea nahi dute, horretarako langile gehiago kontratatuta. Bigarren puntua zapatuekin lotuta dago: langileek urtetik urtera zapatuak libratzen hasi nahi dute, eta 2004rako guztiak libratzea. Enpresak 2005era arteko proposamena egin die, urte horretan oraindik ere 12 libratuta. /M.B.

ARRASATE

# Etxean erabilitako olioak batzen hasiko dira hil honen bukaeran

Apirilaren 26tik aurrera, etxean erabilitako olioak batzen hasiko dira Arrasaten. Helburua da olio horiek harraskatik bota beharrean, batzea eta birziklatzea. Izan ere, harraskatik botatzean eragiten dugun kutsaduraz gain, arratoien ugaltzea ere bultzatzen dugu; arratoiak, besteak beste, olioarekin elikatzen dira-eta.

Batutako olio horrekin biodiesela egiteko asmoa du Ecogras enpresak, landare olioak batzeaz arduratuko den enpresak. Izan ere, biodiesela Diesel motordun ibilgailuetan erabili ahal izango da, eta gainera, gasolioaren ondoan, askoz ere gutxiago kutsatzen du.

Hilean behin batuko dituzte olioak, hileko azkeneko egubakoitzean, hain justu ere. Bi leku izango dira horretarako: Laubide plazan, 09:00etatik 13:00etara eta Maxi-Eroskiko aparkalekuan, 16:00etatik 20:00etara bitartean.

**ORAIN DELA ZORTZI URTE**

Orain dela zortzi urte hasi ziren Arrasaten erabilitako olioak batzen. Baina ostalaritzarekin lotutako enpresetan erabilitako olioak bakarrik batu izan dituzte orain arte. Ecograsek emandako datuen arabera, kontsumitzen dugun landare-olioen %70 etxe partikularretan kontsumitzen dugula, herritar bakoitzeko sei-zazpi bat litro urtero. Horrek esan gura du Arrasaten 150.000-175.000 litroren artean kontsumitzen dela etxeetan. Hortaz, hori batzea ere komeni da birziklapena indartzeko. /UBANE MADERA

**Zertzelada**

**Batutako olioarekin biodiesela egiteko asmoa dute. Gero, Diesel motordun ibilgailuetan erabili ahal izango da erregai hori.**

OÑATI

# Txantxiku Ikastolak 35. urteurrena ospatuko du apirilean eta maiatzean

Apirilaren 26an (egubakoitza) hasiko dituzte ospakizunak. Egun horretan, haur parkea egongo da ikastetxeko jolaslekuan, eta 18:00etan, jaialdia egingo dute Santa Ana aretoan.

Apirilaren 27an ere, hainbat ekitaldi antolatu dituzte: besteak beste, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia kiroldegian, 17:00etan. Ospakizunen artean ekitaldi aipagarrienetakoa Xabier Mendigurenen hitzaldia izango da, maiatzaren 2an.

Maiatzaren 4an, azkenik, ikasle ohien bazkaria egingo dute kiroldegian. Txartelak salgai daude ikastolan bertan eta herriko hainbat tabernatan ere. /AINTZANE IRIZAR



**Maiatzaren 4an ospatuko dute ikasle ohien eguna, bazkari batekin.**

ARETXABALETA

## Aretxabaletako Zuberoa Garatzen Topagunearen aurkezpen hitzaldia

Herriko gazte talde batek, Zuberoak bizi duen egoera larria ikusita, Aretxabaletako Zuberoa Garatzen Topagunea izeneko laguntza taldea eratu du. Kontua da Zuberoak azken urteetan izan duen gainbehera ekonomikoaren eraginez, gauzak asko okertu direla lurralde horretan.

Gauzak horrela, AZGTk aurkezpen hitzaldia antolatu du, herritarrek Zuberoaren egoera gertutik ikus dezaten. Hitzaldia apirilaren 24an egingo dute, 19:00etan, Murrukixoko lokalean. /AMAGOIA LASAGABASTER

ESKORIATZA

## Javier Madrazo sailburua izan zen etxebizitzen gainean berba egiten

Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburua eta Javier Dean sailburuordea izan ziren Eskoriatzan joan den martitzenean. Etxebizitzen gaineko politikari buruz egin zuten berba, Ezker Batuak antolatutako hitzaldian.

Javier Madrazoren esanetan, gero eta zailagoa da etxebizitza duina erostea, eta gobernuari dagokio babes ofizialeko etxeak eskaintzea. Eskoriatzan, esaterako, 16 egingo dituzte, sinatu berri duten hitzarmenaren arabera, Aretxabaletan 14 eta Arrasaten 308. /MIRARI ALTUBE

LEINTZ GATZAGA

## GUREL Ludotekarako txanda berriak egin dituzte

GURELek batzarra egin zuen barikuan, eta ludotekara joateko txandak egitea erabaki zuen. Azken hilabeteetan, adin guztietako umeak batera egon izan dira ludotekan, eta arazo batzuengatik, umeak adinka banatzea erabaki zuen. Aurrerantzean, 3 eta 4 urtekoak, egunero, 17:00etatik 18:00etara joan ahal izango dira ludotekara, eta gainerakoak, 18:00etatik 19:00etara.Horrez gain, guraso guztiei eskutitz bana bidaliko diete, seme-alabekin batera ludotekako arauak zeintzuk diren gogoratzeko. A.G.

# Zabalik



ANDRES
OSA
"SAKONA"

## Kontzientzia?

**Euskararen erabileraren gabezia bizitzako arlo guztietan nabaritzen da. Baina min gehien ikastetxeetako egoerak ematen du. Hortaz, euskararen erabilera bermatzeko bitartekoak ipintzea ezinbestekoa da. Ipini eta bete.**

**Ikastola edo ikastetxe orotan, irakasleriak plangintza zehatza egin behar du eta zer gauza hoberik, neska-mutikoak dabiltzan tokietan, eurekin batera jolastea baino? Harreman hauek, gainera, heziketa arloan berebiziko onura dakarte. Horretan saiatzea indarrak behar den bezala inbertitzea da. Ikastetxeetara mugatuz, jolasaldian, futbolean, saskibaloian nahiz edozelako harremanetan jolasa edo jokoa tartean izanik, hortxe murgildu behar da.**

**Jolasaldietan, ikasleak dabiltzan tokietan, futbito partidan, saskibaloian, eta abar, hortxe bermatu behar da euskararen erabilera. Taldekide bat gehiago, ez "alkauete" itxurarekin. "Non mina, han mihia" esan ohi da. Pasealekuetan, geletan, jantokian, komunetan, eta abar, euskararen aldeko leloak jarri. Autobusean, jantokian eta beste tokietan, arduradun euskaldunak erabili. Hau guztia bultzatzeko eta bermatzeko, ikasle eta irakasleen arteko taldeak sortu, klaseka zein zikloka. Adostu nolabaiteko "zigor" eta "sari" neurriak.**

**Eskola arteko kiroletan, beti euskaraz hitz egingo duten entrenatzaileak erabili. Entrenamenduetan eta partidetan euskaraz soilik mintzatzen bada, entrenatzaileak kontzientzia hori barneratua badu, erdarara jotzen duten jokalariekin neurriak hartuko ditu. Euskaraz hitz egingo duten epaileak ipini. Egoera hauetan sortzen da taldekideen arteko baterako edo besterako joera, onerako edo txarrerako ohitura.**

**Tamalez, "profesionalen" artean, zuzendaritzak barne, zera ikusten da: axolagabekeria, kontzientziarik eza. Entzungor, ezikusi, jaramonik ez egin, kezkarik ez da sortzen. Arduraduna arduragabekerian erortzen den unean etorkizun beltza nabaritzen da.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

## Mikel Arroiaberi gutuna *Putz* aldizkaritik

Kaixo Mikel. 2002ko martxoaren 15eko xure komi(x)ki(n) hari puntualizazio txiki batzuk besterik ez:

1. Xure komixkin horretako protagonisten ahotan jarri xenuen sexua darabilgula jendea erakartzeko. Aixu, Mikel, gaur arte 14 zenbaki argitaratu ditugu, 2 urte eta pikuko ibilbidea egin dugu, eta gure irakurleek, honezkero, xoberan dakite *Putz* zer den, eta sinets egidaxu, portadako —noizean behingo, portzierto— sexu-irudi esplizituek ez dute gure aldizkaria salgarriago egiten. Jendea argi bako obsexu lerdejariotzat hartzen duen xaxilixtro ederra eginda xaude gero!

2. Funts bako sexua? Aixu, Mikel, gure Zakiltxo hartzatxoa Idahotik Euskal Herrira ekarri dugunetik, Ameriketako euskal *lobby*a mugitzen hasi da, ez xara enteratu ala? Hala ere, esaiguxu, Mikel, non dago sexuaren funtsa ba? Prokreazioan? Duela gutxi Gasteizko alkate Alonsok aldizkari pornoak kendu gura izan zituen kioskoetako erakusleihoetatik. Ba xure jarrerari Gasteizko alkatearenaren kirats berbera dario, izan ere, funtsean, "jator-guay" itxurako inkixidore txikiak baino ez xarete-eta, bai xu eta bai xure erreplikante diren "Olatz eta Patxi" *freaky* okaztagarriok ere.

3. Xure txiste-gurako horretan alternatibo etiketa jartzen diguxu, gero horretaz trufatzeko. Guk ez dugu inoiz alternatiboak garenik esan, horiek xure asmazio gaixoak dira, Mikel. Baina kontua baldin bada etiketak jartzen hastea gero deskojonatzeko... ba begira: Olatz eta Patxi dirade progre-gurako pertsonajetxo txit-txit grotexkoak; xure "Olatz eta Patxi" trixtemente xelebreak ez dira José Luis Morenoren Makarioren abarken zolara ere iristen; eta benetan, don Celesi askoz ere sexitasun handiagoa dario "Olatz eta Patxi" izeneko kapoi gatzbako, grix eta politi-kokil xuxen horiei baino. Xure komixkinei begiratzea hain da trixtea, ze litioa edo Prozak pilulak eskura eduki behar diren alimaleko depresio batean ez erortzeko.

Orain xerio-xerio, Mikel. Hara, Urkuluko antzarrak perratzeaz gogait eginda baxaude, eta gure aldizkaria irakurriz libertitzen ez baxara, ba hor dauxkaxu *Super Pop*, *Ragazza* edo textiguen *Atalaya*, xu eta xu lakoentzat propio eginak. Putzlaritzan gabiltzanok nahikoa daukagu gure patologiekin, xure kakamokordoei erantzuten denbora alperrik galtzen ibiltzeko. Arribedertxi!

PUTZEKO ERRE-DA-AKZIOA
Debagoiena

## Sua areagotu

Jarraian doazen bertso hauek Xenpelarrenak dira eta egoki iruditu zait nire gutun honi sarrera emateko. Horra hor:

Lege eder bar jarri
bizi gaitezen garbi,
hori desio nuke nik
ixuri gabe odolik.

Zeinek ez? Arazoa sortzen da lege eder bat izateko eta garbi bizitzeko aukera dugun edo ez aztertzean. Batzuentzat erantzuna borobila da: demokrazian bizi garenez, asmo horiek beteta dauzkagu edo bide baketsuen bidez eskura ditzakegu. Besteentzat, ordea, eta ni horretan nago, ez dugu lege ederrik, ezta ere garbi bizitzeko eskubiderik. Ondorioa: bortizkeria soberan, zenbat malko eta odol isurtzen dira; hori bai, alde bietatik.

Niretzat indarra erabiltzearen legezkotasun morala edozein pertsonak. Herrik zein talde sozialak, edozein arazo zapalkuntza, indarrez edo txantajearen ondorioz ezarritako egoeraren aurrean defendatzeko duen eskubidean datza. Mota guztiko biolentziaren kontra bere burua agertzen duten askok eta askok estatuak berarentzat gordetzen duen biolentziarako monopolioa nola edo hala onartu egiten dute.

Konstituzioa eta aberria zaintzeko omen dago Espainiako armada eta konstituzio hori ontzat ez dutenek bere armada propioa izateko eskubiderik ez dute.

Gure herrian, Estatuaren biolentziaren kontra borroka armatua dago. ETAren helburu edo estrategiarekin ados egon edo ez, ukaezina da erakunde politiko-militarra dela. Eta bere helburuak gure herriak jasaten duen egoeran oinarritzen direla.

Hori esanda, baita ere esan behar dut: nire uztez, erreparorik gabeko atentatuak, auto-bonbak, hautetsiak hiltzea, edo alderdi politikoen aurkako erasoak, edo ekintza indiskriminatuak, giza kalteak ez ezik, arazo estrategiko, politiko eta etikoak jartzen dituztela mahai gainean. Estrategikoak eta politikoen aldetik guztiz eztabaidagarriak eta etikoki bidegabeak: Juan Priederena barne. Nire desadostasuna ekintza horrekin. Aurkari edo etsai politikoak hiltzearen aurka nago erabat.

Gaur egun, distentsio politikak, trantsizioaren aspaldiko garai haietan konpontzeke geratu ziren era guztietako korapilo zaharrei zentzuzko konponbidea emateko borondateak eta, aldi berean, herritargoaren sektore guztiei giza eskubide guztiak errespetatzeak, ez beste ezerk, zabal dezake bidea gure gizartean ematen diren arazoak konpontzeko. Baina gobernu espainiarrak, partidu popularra eta partidu sozialistaren babesarekin proposatzen dituzten neurriak, Batasuna legez kanpo uztea barne, edukiz erabat antidemokratikoak eta oinarrizko eskubide eta askatasunak murrizten dituzte. Neurri horiek praktikara eramaten badira, gure gizartean gero eta egoera kezkagarriagoa izango da. Konpondu beharrean, gehiago hondatzerako besterik ez du balioko. Hori ez da bidea.

Estatuak ezker abertzalearen aurka darabilen errepresio politika bidegabea bertan behera utzi behar du. Eta horrekin batera, ETAk beste su-eten bat, mugarik gabea, eta gure gizarteko ordezkari diren aurkako edozein presio borxatiren desagerpena.

Premiazko urratsak dira distentsio egoera batera heltzeko. Horretarako beharrezkoa da parte guztien arteko baldintzarik gabeko elkarrizketa hastea lehenbailehen. Gure esku dago. Horrela ez bada, hemendik urte askotara ere Xenpelarren bertsoek ez dute egunerokotasunik galduko.

JUAN RAMON GARAI
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## *Eztabaida*

Atarrabian joan den astean izan zen gertakariak erabat ikaratu zuen Nafarroako gizartea. Indar politiko guztiak bat etorri ziren horrelakorik berriro gerta ez dadin zer edo zer egin behar dela aitortzerakoan. Senarra izandakoaren labankadaren ondorioz hil zen Alicia Aristregi joan den astean Atarrabian. Tamalez, horrelakoak edo antzekoak maiz gertatzen dira. Geroago eta sarriago irakurri edo entzuten ditugu hedabideetan tratu txarrak jasan dituzten emakumeen gaineko berriak. Baina zer egin horrelakoak ekiditeko?

# Emakumeen aurkako tratu txarrekin amaitzeko zer egin daiteke?

### *Inplikazio soziala bilatu behar da*



PILAR ETXANIZ
Irakaslea

Eratzen joan ahala, eginkizun ezberdinak jarri dizkigu gizarteak gizonei edo emakumeei; gizonei, alor publikokoak eta emakumeei, alor pribatukoak (zaintza, harremanak...). Banaketa honek beste bereizketa bat sortu du: gizonek gogorrak, arrazionalak, autonomoak izan behar dute; emakumeek, ahulak, sentimentalak, menpekoak.

Gizonekin lotutakoa sozialki prestigiatu egin da, eta emakumeena menpeko geratu da. Tratu txarren oinarrian errealitate hau dago eta berau gainditu arte iraungo dutelakoan nago, emakumeak eta gizonak parekoak izan arte, pertsonon izaerak modu askean garatu ahal izan arte eta bakoitzaren norbere bizi-proiektua gauzatzeko aukera berdintasuna lortu arte. Eta bitartean, zer?

Beharrezkoa da tratu txarren kontrako inplikazio soziala: politikarien agendako lehentasunezko gai bilakatzea, alderdien programetan, bileretan, agerraldietan, gailurretan, gobernu-itunetan sartzea. Komunikabideek lau haizetara zabaltzen dituzten edukien kontrola eta parekotasunaren aldeko kode etiko bat betearaztea. Giza baloreen eta harremanen iraulketa: hezkidetza eskoletan (hezkuntza lehiakorraren ordez, elkarlana; curriculumaren errebisioa eta emakumeen ekarpenak eskolatzea); gatazkak kudeatzen ikasteko formazioa; familian harreman eredu egokiak (parekotasunaren baloreak garatu eta umeekin harremantzerakoan autoritarismoaren lekuan lidergo etiko bat suspertzea)…

Tratu txarrak jasaten dituen emakumea lehen salaketa jartzen duenetik babestu behar da: neurri juridikoekin (berehalako tramitazioa, erasotzaileak urruntzea, espetxeratze prebentiboa…); ekonomikoekin (berari giza soldata edo antzekoa ziurtatuz); zerbitzuekin (atentzio zentroak, etxebizitzak, informazioa eta orientabideak, atentzio psikologikoa); lan munduan sartzeko prestakuntzarekin. Inork ez genuke bestaldera begiratu behar, denon zeregina dela onartzen badugu, bakoitzak asmatuko dugu zertan bota esku bat.

**“Denon zeregina dela onartzen badugu, bakoitzak asmatuko dugu zertan bota esku bat”**

### *Gizarte osoarena da erantzukizuna*



LARRAITZ UGARTE
Abokatua

Alicia Aristregi da genero-biolentziak eragindako azken biktima euskaldunaren izena. Atarrabiakoa, gaztea eta banandua, bere senar ohiak hil zuen. Aste honetan bertan Bilbon zorte hobea izan duen beste emakume baten albistea iritsi zaigu. Datorren astean, ordea, hau guztia ahazten hasten zaigunean, beste emakume batek, hartuko du lekukoa, eta gero beste batek eta beste batek… Eta emakume horien ondoan egunkarietako orrialdeak beteko ez dituzten emakumeak egongo dira, euren etxean gizonengandik tratu txarrak jasaten.

Horrelakoetan, beti daude zigor-neurri zorrotzak eskatzen dituzten ahotsak, neurri isolatu horiekin tratu txarrekin amaitzea posible balitz bezala. Biolentzia hau generokoa da eta, beraz, orokorra. Tratu txarrak ez dira banakako gizonen aldizkako aztorapenen ondorio soilak. Gizon-emakumeen hartu-emanen antolaketan, gizarte egituraketa patriarkalean eta emakumeak oraindik esparru pribatuan eta eremu ekonomikoan duen paper desorekatuan aurki daitezke jarrera hauen arrazoiak.

Tratu txarrekin amaitzeko neurri zehatzak eta egiturazko aldaketak beharko dira. Neurri konkretuei dagokienez, bi eremu ikusten ditut garrantzitsuak: batetik, emakumearen segurtasuna bermatzera bideratuta dauden neurriak leudeke eta, bestetik, emakume kaltetuek tratu txarrekin amaitzeko iniziatiba izan dezaten irtenbideak proposatu behar dira, batez ere, euren independentzia ekonomikoa lortzeari lotutakoak.

Baina batez ere, egituraketa sozial, politiko, juridiko eta ekonomikoa aldatzetik etorriko da tratu txarren amaiera. Emakume eta gizonezkoen berdintasunezko harremanetan oinarritutako gizarte baten aldeko pausoak eman beharrean gaude. Tratu txarren gaiak gizarte osoari eragiten dio eta gizarte osoarena da horrekin amaitzeko erantzukizuna: jarrera horiek deitoratuz, tratu txar egileak salatuz eta tratu txarren aurrean tamainako erantzuna emanez. Azken finean, gizartean emakumearekiko errespetua lortzearen bidetik etorriko baita tratu txarren eta generoko biolentzia ororen amaiera.

**“Berdintasunezko harremanetan oinarritutako gizarte baten aldeko pausoak eman beharrean gaude”**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Zer iritzi daukazu kiroletan titulu barik entrenatzeari buruz?*

## *Gora eta Behera*

**KULTURA MUGIMENDUA**

Aspaldian hilero egoten da Eskoriatzan kultur ekitaldi interesgarririk: nagusientzako antzerkia, umeentzako txotxongiloa, kantaldi handi nahiz txikiak, literatur astea… Guztia herriko talde, erakunde nahiz unibertsitateak egindako lanari esker. Jarrai dezagun halaxe!

**EUSKARAZKO PROGRAMAK EROSTEKO TRABAK**

Ordenagailua erosterakoan, euskarazko Windows eta Office programak eskatu eta trabak baino ez ditut jasotzen bidean. Euskarazko bertsioek arazoak ematen ei dituzte, euskarazkoa erosteko hainbesteko bat gehiago ordaindu behar omen dut, sarean dauden beste ordenagailuekin ez dela konpatiblea, trabak, trabak, trabak…



M. KARMEN ARRIETA
Eskoriatzako Euskara teknikaria

## *Koplak*

### *Politikoak*

Politikoen jarduna
ezin bukatu eguna,
zeinen itxura apaina eta
zeinen jarrera iluna.

Ibarretxe sinpatiko
euskaldunen buru tinko,
lau urterako jarri zutena
izango al da betiko?

Mayor Orejatar Jaime
espaniar, euskal seme
erruki gabe zabor poltsekin
ito nahi gaitu, ai ene!

Eta Arnaldo Otegi
euskal bihotz, napar begi
bide bakar bat bistan duenak
ezin du bestetik segi.

Elur garaiaren jira
Nikolas Redondo di-da,
indar gutxien duen arbola
bere kabuz erori da.

Zenbat hitzezko emari
hire mina, nere sari
lekua ere kendu diote
sinesgarritasunari.

EGOITZ AIZPURU

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# *Eneritz Ibarguren*

VENEZUELAKO ANDRES BELLO UNIBERTSITATEKO LANGILEA

# “Egoera jasanezinari irtenbidea topatzeko herritarrek eta militarrek bultzatutako estatu-kolpea izan da Venezuelakoa”



Chávez presidentearen aurkako estatu-kolpeak gertutik harrapatu du Eneritz Ibarguren bergararra. Ia bi urte daramatza Caracas-en. Hiru hilabeterako joan zen hara kooperante moduan, eta han geratzea erabaki zuen. Gaur egun, Andres Bello Unibertsitate Katolikoan dihardu lanean, auzune txiroetarako osasun egitasmoak koordinatzen. Martitzenean egon ginen Eneritzekin.

ENEKO AZKARATE

**Chávez-en aurkako kolpearen ostean eta Chávez-ek berriro ere presidente kargua hartu ondoren, normaltasunez bizi zarete une honetan Caracas-en?**

Ez; esan genezake larrialdi egoeran gaudela. Hainbat sarraski gertatzen ari da Caracas-en, eta polizia erantzun ezinda dabil. Delinkuentzia areagotu egin da azken egunotan. Normaltasunean sartu nahian gabiltza, baina ez da horren erraza. Alerta egoeran gaude. Bestalde, auzuneetan lan egiten dugunez, oraingoz, nahiko zaila egiten zaigu bertara gerturatzea, han izan diren sakeoak eta hilketak direla-eta. Gaur (martitzena) goizean, oraindik, asteburuan hildakoen gorpuak jasotzen ziharduten. Bestalde, dolu-egunak izan dira hauek gizartearen zati handi batendako: erdiko klasekoendako, auzuneetan bizi diren Chávez-en aldeko ez direnendako, eta Chávez ez aldeko eta ez aurkako dutenendako.

**Orain, zein da egoera kalean, eskolan, lanean, hedabideetan…?**

Herritarrak beldurtuta daude, ekintza bandalikoak ugaritu egin direlako. Bestalde, jendea gaur (martitzena) hasi da apurka-apurka lanera eta eskolara joaten. Edozein modutan ere, azken gertaerak dira hizpide lantokietan eta ez dakit jendea benetan lanean hasi den oraindik. Hedabideei dagokienez, Chávez-en aurka agertu direnak gaur hasi dira normaltasunez lan egiten. Baina Chávez-en kontrako kazetari asko atxilotu dituztela jakin dugu. Telebista kate pribatuek filmak-eta eskaini dituzte gaur arte. Albistegirik ez, ordea. Chávez-en gobernuko hedabideetan bakarrik eskaini dituzte albistegiak eta normaltasun egoeran gaudela zabaldu dute, nahiz eta hori gezurra izan. Oro har, egiazko informaziorik ez zaigula heltzen sentitzen dugu, eta, horregatik, satelite bidezko nazioarteko telebista kateei begira gaude, baina horietan ere ez da islatzen benetan bizi dugun egoera. Sarraski hau salatuko duen nazioarteko erakundeen adierazpenen zain gaude.

**Seguru zaudete zuek? Beldurrik pasatu duzue?**

Herritarrak ez dira babestuta sentitzen, eta guk ere beldurra pasatu dugu hainbat momentutan. Hemengoek esan didate, 1989an, *Caracazoa* gertatu zenean, antzeko egoera bizi izan zutela. Oraingoan, baina, Chávez-ek “herria” deitzen duena armaz josita dago eta autoritatearen kontroletik kanpo dabiltza.

**Kontatuko diguzu, labur-labur, azken aste honetan Venezuelan gertatu dena?**

Apirilaren 9an, hau da, joan den asteko martitzenean, hasi zen guztia. PDVSAko (Venezuelako Petrolioa) zazpi langile kanporatu egin zituzten eta Chávez-ek, publikoki, iraindu egin zituen langileok *Aló Presidente* bere telebista saioan. Horren aurka protesta egiteko, kale bilkura egin zuten PDVSA lantegiaren aurrean, baina Bolivariar taldeak, hau da, Chávez-en aldekoak, protesta ekitaldiotan bildutakoak egurtu zituzten eta istiluak sorrarazi zituzten. Horren guztiaren aurrean, lanuzteak antolatu zituzten, eta eguenerako, hilaren 11rako, protesta ibilaldirako dei egin zuten. Egueneko manifestazioan 500.000 lagun elkartu zirela esan zuten. Inoiz Venezuelan ikusi den protesta bilkurarik handienetakoa izan ei zen. Herritarren erantzuna ikusita, Miraflores jauregira, Chávez-en egoitzara, joatea erabaki zuten antolatzaileek. Han, baina, harrika eta irainka hartu zituzten manifestariak Bolivariar taldeek. Horrez gainera, tiroka ere egin zuten Chávez-en aldeko frankotiratzaileek eta Guardia Nazionalekoek, manifestarien aurka. Une horretan, Chávez presidentea komunikatu ofiziala irakurtzen hasi zen hedabideetan. Ondorioz, herritarrek ezin izan zuten gertatzen ari zenaren berri izan. Kasualitatez, telefono sarea bertan behera geratu zen eta geroago, telebista pribatuetako seinalea ere desagertu egin zen. Gauerdian, Chávez-ek kargua laga zuen eta, militarrek proposatuta, Carmona presidente ipini zuten. Hurrengo egunean, egubakoitzean, Carmona Venezuelako presidente izendatu zuten eta Chávez-en gobernukoen aurkako erasoak izan ziren. Batzar Nazionala bertan behera geratu zen. Zapatuan, baina, Chávez-en aldekoek Caracasko kaleak hartu zituzten kolpearen aurka protesta egiteko, eta istiluak eta ekintza bandalikoak hasi ziren. Bestalde, *Chavistek* Miraflores jauregia hartu zuten eta kargutik kendutako presidentearen aurkako errebeltan jardun zutenak atxilotu zituzten. Aurreko egunetan moduan, domekan ere, tiro eta bonba hotsak entzun ziren kaleetan eta, azkenean, Hugo Chávez-ek berriro ere boterea hartu zuen.

**Esan daiteke Chávez-en aurkako militar kolpea izan dela?**

Ez dakigu. Sekulako informazio eza dago hemen. Inork ez du ezer argitu. Uste dut guk baino informazio hobea daukazuela zuek, hor Euskal Herrian bizi zaretenok.

**Ala herritarrek eurek kendu dute boteretik?**

## GIZARTE ZIBILA

**“Protestaldi horiek guztiak gizarte zibilak bultzatu ditu, eta ez alderdi politikoek. Kuriosoa da, baina enpresaburuek eta langileen sindikatuek bat egin dute Chávez-en aurka”**

## INFORMAZIORIK EZ

**“Egiazko informaziorik ez zaigula heltzen sentitzen dugu, eta, horregatik, satelite bidezko nazioarteko telebista kateei begira gaude. Horietan ere ez da islatzen bizi dugun egoera”**

## GIZARTE POLARIZATUA

**“Tentsio uneak bizi ditugu eta gizartea bitan banatuta ikusten dut: Chávez-en aldekoak eta haren aurkakoak. Bi aldeak, gainera, mutur banatan daude”**

## TXIROAK CHÁVEZEKIN

**“Behartsu gehienak Chávez-en politikarekin ados daude, oso diskurtso paternalista erabiltzen duelako eta aberatsen aurkako amorru sentimendua bultzatzen duelako”**



ENEKO AZKARATE

Nire ustez, herritarrek eta militarrek bultzatutako estatu-kolpea izan zen. Esango nuke, egoera jasanezinaren aurrean, irtenbide bat topatze aldera hartutako erabakia izan zela. Dena dela, esan behar da protestaldi horiek guztiak gizarte zibilak bultzatu dituela, eta ez alderdi politikoek. Kuriosoa da ikustea enpresaburuek eta langileen sindikatuek bat egin dutela Chávez-en aurkako protestaldietan.

**Eta zelan ulertzen da kargutik kendu eta handik bi egunera berriro ere kargua hartzea Chávez-ek?**

Inork ez du ezer ulertzen. Puzzle handi honetan pieza asko falta zaizkigu. Egun hauetan gertatu dena argitze aldera, oposizioko indar politiko batek (Primero Justicia) laguntza eskatu dio nazioarteko hainbat erakunderi.

**Orain, zelan daude gauzak?**

Tentsio uneak bizi ditugu eta gizartea bitan banatuta ikusten dut: Chávez-en aldekoak eta haren aurkakoak. Bi aldeak, gainera, mutur banatan. Horrek arduratuta gauzka. Bestalde, Chávez berriro ere boterean egon arren, honen aldekoek sakeoekin jarraitzen dutela ikustea ulergaitza da. Sakeoak, gainera, auzune txiroetan egiten ari dira. Are ulergaitzagoa oraindik.

**Nortzuk daude Chávez-en alde eta nortzuk aurka?**

Denetik dago bi aldeetan. Behartsu gehienak Chávez-en politikarekin ados daudela esan genezake, oso diskurtso paternalista erabiltzen duelako eta aberatsen aurkako amorru sentimendua bultzatzen duelako. Horiek, gainera, ez dute etorkizuneko proiektuetan sinesten eta atzerriko inbertsioaren aurka daude. Edozelan ere, bere egunean botoa Chávez-i eman zioten, baina gaur egun, Chávez-en aurka daude gero eta jende gehiago dago. Gero eta gehiago dira Hugo Chávez iruzur egiten ari dela uste dutenak.

**Errepresaliarik hartu du Chávez-ek berriro ere boterea hartu ondoren?**

Oraingoz, estatu-kolpea bultzatu zuten militarrak atxilotuta daude eta, bestalde, Chávez-en politikaren aurkako jarrera publikoki agertu duten asko eta asko ezkutatuta edo Venezuelatik ihes eginda daude.

**Luis Ugalde jesuita bergararra da Andres Bello Unibertsitateko errektorea. Venezuelatik kanpo harrapatu du errebolta honek, ezta?**

Bai. Martxoaren 22an irten zen Venezuelatik, eta maiatzaren 1era arte nazioartean dabil lanean.

**Chávez-ek komunistatzat dauka bere burua?**

Sekula ez du bere burua komunista moduan agertu, baina Kubarekin eta Castrorekin daukan jarrerarengatik, esan genezake begi onez ikusten duela komunismoa.

**Euskal Herriko zein Espainiako ezkerreko joera dutenak, baita hainbat ezkerreko intelektual, Chávez-en alde edo, behintzat, Chávez kargutik kentzeko moduaren aurka agertu dira. Zer deritzozu horri?**

Ez dut ezer entzun, baina nahiko nuke pertsona horiek hemen bizi izatea, Chávez-en politika gertuagotik bizi izateko.

**Chávez, edozein modutan ere, demokratikoki aukeratu zuen herriak, ezta?**

Bai, bai, hori horrela da.

**Gertatutakoa gertatuta, berriro ere hauteskundeak deitzeko asmorik azaldu du Chávez-ek?**

Ez. Legeak agintzen duenez, 2004. urtean erreferenduma egin beharko litzateke hauteskundeak deitu edo ez erabakitzeko, baina jendeak ez dauka itxaropen handirik, Chávez-ek behin baino gehiagotan aitortu duelako 2021. urtera arte egongo dela boterean. Bestalde, Ameriketako Estatu Batuen presioa dela eta, hiru hilabete barru hauteskundeak deituko dituztela dioten zurrumurruak ere entzun dira… Ez dakit.

**Hemengo komunikabideetan esan dute Ameriketako Estatu Batuak eta CIA daudela Chávez kargutik kentzeko ahaleginaren atzean. Horrela dela uste duzu?**

Hemen ez dute horrelako ezer ziurtatu, zurrumurruak bakarrik. Guk ez dakigu ezer.



ENEKO AZKARATE

## "Venezuelako dirudunen helburua emigratzea da"

**Oro har, jendea zela bizi da Venezuelan?**

Gizarte klaseen arteko ezberdintasun handia dago, baina gero eta aberats gutxiago dago, ekonomiaren ezegonkortasuna dela eta, inbertsiorik ez delako egiten eta dirudunen helburu nagusia beste herrialde batzuetara emigratzea delako.

**Venezuela herri aberatsa da, baina? Munduko petrolio esportatzaile nagusietakoa da, ezta?**

Lurralde aberatsa dauka Venezuelak, baina ez da nazio aberatsa, besteak beste, petrolioa eraldatzeko industriarik ez dagoelako.

**Zelako unibertsitatea da Andres Bello?**

Venezuelako unibertsitaterik prestigiotsuenetakoa da. Beste unibertsitateak baino askoz lan handiagoa egiten du komunitate behartsuenekin. Egunetik egunera haziz doan unibertsitatea da, gainera.

**Zer jende mota doa unibertsitate horretara?**

Unibertsitate pribatua da, baina dirurik ez dutenendako laguntza eta aukera handiak eskaintzen ditu.

**Eta hezkuntza publikoa zer egoeratan dago?**

Unibertsitate mailan, nahiko ondo, baina beheko mailetan, berriz, sekulako kaosa dago.

*Podiuma*

# Leire Altube | OÑATIKO TRIATLOI TALDEKOA |

**Leire Altube 25 urteko oñatiarrak zapatuan Gasteizen jokatutako Euskadiko Mendiko Duatloi Txapelketa irabazi zuen. Leire Oñatiko Triatloi Taldean ari da. Aurretik mendi bizikleta probetan ibilitakoa da, eta Baque txirrindularitza taldean lau urtez jardun zuen. Aurten, lau duatloi egin ditu dagoeneko, eta aste bukaeran, Euskadiko Selekzioarekin izango da Lugon, Espainiako Duatloi Txapelketan.**

**Gasteizen txapela eskuratzea espero zenuen?**

Mendiko duatloietan errepidekoetan baino hobeto moldatzen naiz, eta aurrekoekin egotea espero nuen. Zapatuan, zazpi kilometro korrika, beste 17 mendiko bizikletan eta azkenik 3,5 kilometro korrika egin behar izan genuen. Korrikako lehen proba lehen postuan amaitu nuen eta mendiko bizikletako ibilbidean zati teknikoagoan aldea handitu nuen nire jarraitzaileekiko. Horrek konfiantza eman zidan eta korrikako azken zatian hobeto ibili nintzen, lasaiago. Gasteizko proba irabazteak izugarrizko ilusioa egin zidan. Garaipena nire aitari eta Sabin Usandizaga osabari eskaini gura diet.

**Euskadiko Duatloi Zirkuituan oso ondo zabiltza aurten.**

Egia esateko, lehenbiziko bi lasterketetan ez nuen espero horren ondo ibiltzea: Inatxaurrondoko proban seigarren postuan sailkatu nintzen eta Basaurikoan bosgarren izan nintzen. Gero, Oñatiko proban bigarren postua eskuratu nuen eta horrek moral handia eman zidan. Geroago eta gusturago nabil eta uste baino hobeto moldatu naiz duatloiak egitera.



Leire Altube Euskadiko mendiko duatloi txapelduna dugu.

**"Mendiko duatloietan errepidekoetan baino hobeto moldatzen naiz, eta oso pozgarria izan da Gasteizeko proba irabaztea"**

**"Ezkarain jokatuko den Espainiako Mendiko Duatloi Txapelketan lehenengo hiruren artean sailkatu nahi nuke"**

**Zein asmo daukazu Lugoko Espainiako Txapelketari begira?**

Ikusi behar. Taldeka jokatzen den txapelketa da eta Euskadi ordezkatzera joango gara Galiziara. Talde bakoitzeko lehenengo hiruren denborak hartuko dituzte kontuan. Maila handia izango da, eta ahal dugun ondoen ibiltzen saiatuko gara. Ohi baino distantzia luzeagoak izango ditugu: 10 kilometro korrika, 40 bizikletan eta 5 korrika. Hala ere, hemendik bi astera Espainiako Mendiko Duatloi Txapelketa jokatuko da Ezkarain, eta han, lehen hiruren artean sailkatu gura nuke.

**Zelan hasi zinen Oñatiko Triatloi Taldean?**

Probak ikustera joaten nintzenean, hasteko gogoa izaten nuen. Aurten, Oñatiko Triatloi Taldea sortu da eta taldetik deitu ziguten Gurutze Altunari eta bioi. Gurekin batera Arrasateko beste neska bat dabil. Zorionez, gero eta ohikoagoa da neskak ere aritzea. Oñatin jokatutako duatloian 18 neskak hartu genuen parte.

**Triatloirik egiteko asmorik daukazu?**

Uretan ez naiz ondoegi moldatzen eta ez dakit aurten probatuko dudan. Ekainaren 22an, Hiru Handien proba (100 kilometrokoa) egin gura dut eta, sasoi onean banago, uztailaren 7an, Aizkorriko Maratoian hartuko dut parte.



## Ozkoidi nagusi Gorlako txakur leren proban

Iker Ozkoidi nagusitu zen domekan Gorlan jokatutako txakur leren lasterketan. Ozkoidik sei txakurrekin hartu zuen parte eta 21 minutu eta 49 segundo behar izan zituen ibilbideko bederatzi kilometroak egiteko. Eta hain zuzen ere, probako errekorra hautsi zuen. Euria zela eta, 21 partaide besterik ez zen izan Gorlan, eta Debagoieneko inork ez zuen parte hartu proban.

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Fermin Carrillo
### Futbolaria



Fermin Carrillo jokalari teknikoa zen.

**Hainbat taldetan jokatu zuen.**

**Eibar taldearekin bigarren mailara igo zen.**

**UDA taldearekin hirugarren mailara igo zen.**

Aretxabaletako UDA taldean eman zizkion baloiari lehenengo ostikadak. Ferminek berak ere ez du gogoratzen zenbat urterekin egin zuen debuta, "baina oso gaztea nintzen". Ondo baino hobeto gogoratzen du Patxi Arrizabalaga entrenatzailea, harekin asko ikasi ei zuen-eta. UDA taldean denboraldi onak jokatu zituen eta taldea hirugarren mailara igo zen. Aretxabaletatik Eibar taldera joan zen eta Eibarren bigarren B mailatik bigarren mailara igo zuten. "Ipuruan sekulako giroa izaten zen garai hartan, eta taldeak bikain erantzun zuen". Eibartik Alavesera egin zuen jauzi, baina Gasteizen ez zuen zorte handirik izan: belaunean min hartu zuen eta oso gutxi jokatu zuen babazorro-ekin. Fermin Carrilloren gainbehera gertu zegoen. Eskoriatzarra futbola uzteko zorian izan zen, baina aurrera segitzea erabaki zuen. Menorkako Sporting Mahonesen beste urtebete egin zuen bigarren B mailan, eta Mondran beste hiru urte jokatu ondoren, erretiratu egin zen. Fermin Carrillok 27 urterekin utzi zuen futbola. Urte horietako guztietako oroitzapen ugari ditu Ferminek: "Lagun asko egin nituen eta futbol taldeetan sortzen diren lagunak ahaztezinak dira". Dena dela, oroitzapen txarrak ere baditu: "Futbol profesionala oso gogorra da, eta asko sufritzen da". /GORKA ETXABE

*"Ipuruan sekulako giroa izaten zen garai hartan"*



Fermin Carrillo • Eskoriatza • 1967

BABESLEA

VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10
Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21

# Bergara Hiria Txapelketa hasi da

## Martitzenean, final-laurdenetako lehen kanporaketak jokatuko dituzte

**Bergara Hiria Txapelketako VII. ekitaldia hasi zen martitzenean. Ekainaren 18a bitartean, promes eta amateur mailetako pilotari onenak izango dira lehian Bergaran.**

Amateur mailako bi partidu jokatu zituzten martitzenean: lehenean, Eñaut Arantzeta elgetarrak eta Casado gasteiztarrak 22-6 irabazi zieten Aretxabaletako Errasti anaiei. Arantzetak partidu bikaina jokatu zuen: 13 tanto egin zituen eta bi besterik ez zuen galdu. Unai eta Ibon Errasti markagailuan atzetik izan ziren hasieratik, eta uste baino lehenago geratu dira txapelketatik kanpo. Bigarren partiduan, bestalde, Erroizena-Oteiza bikotea 22-9 nagusitu zitzaien Onar Muguruzari eta Arrietari.

Martitzenetik aurrera, final-laurdenetako partiduak jokatuko dituzte. Promes mailan, Txurruka-Irureta eta Boto-Etxebarria bikoteak izango dira aurrez aurre, 19:30ean. Horren ondoren, Eguzkitza zornotzarrak eta Igor Gutiérrez bergararrak Arantzetaren eta Casadoren aurka jokatuko dute.



E.M.

Aranzeta-Casadoren eta Errasti anaien arteko partiduarekin hasi zen aurtengo Bergara Hiria Txapelketa.

Debagoieneko partaidetzari dagokionez, promes mailan Azagirre bergararrak eta Errarte eskoriatzarrak hartuko dute parte, eta amateurretan, Ubera eta Arantzeta elgetarrek eta Muguruza eta Gutiérrez bergararrek. Ekainaren 18an jokatuko dituzte finalak, eta bitartean, martitzenero izango dira partiduak.

EDU MENDIBIL

## *Kirolabur*

### MOTORRA/ZABALETA

Aitor Zabaleta gidari bergararrak San Cosmeko Igoera irabazi zuen domekan. Lola BMW Telefonica barketarekin, Aitor Zabaletak Euskadiko Mendiko Txapelketako lehen proba eskuratu du. Aitor Erro gidariak izandako istripuaren ondorioz, bergararrak igoera bakarra egin zuen, eta berak egin zuen denbora onena.

### FUTBOLA/DERBIA

Aretxabaleta eta Bergara futbol taldeen arteko derbia izango da domekan Ibarran, 16:30ean. Aretxabaletak 0-0 egin zuen azken jardunaldian Hondarribian, eta Bergarak, aldiz, 3-1 irabazi zion Beti Onari. Aretxabaletarrak 10. tokian daude sailkapenean eta mahoneroak, berriz, 5. postuan ditugu.

### PILOTA/ELKORO

Eskuz Banakako Txapelketaren barruan, Aitor Elkoro elgetarrak Barriolaren aurka jokatuko zuen zapatuan, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Elkorok 22-19 irabazi zion Zearrari apirilaren 5ean eta Errastiren aurkako partidua bertan behera geratu zen, azkoitiarraren lesioagatik. Bihar irabazten badu, finalerdietan izango da Elkoro.




DENA
0,60 €tan
100 pta.tan
EROSKi
Erosten jakin
Balizko eskaintza apirilaren 18tik 24ra.

# Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko apirilaren 19a

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 19tik 26ra

# Umorea literaturan

## Literatura Astea Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultatean



**Jon Alonso**

IDAZLEA

***Euskal karma'*** **nobela-rapsodia' du azken lana idazle iruindarrak.** ***Umorea eta literatura: testu batzuk*** **jardunaldia egingo du.**

**Astelehena (19:00).**



**Arantxa Iturbe**

IDAZLEA

**Irribarrea piztea du gogoko, eta ziur lortuko duela** ***Umorea behar da gero (euskal) idazlea izateko*** **izeneko hitzaldiarekin.**

**Martitzena (19:00).**



**Iban Zaldua**

IDAZLEA

***Irakurraldi bat euskal literaturaren umorearen eta ironiaren inguruan*** **saioa egingo du idazle eta historialari donostiarrak.**

**Eguaztena (11:30).**



**Ander Lipus**

KOMEDIANTEA

***Ardoaz*** **antzezlana eskainiko du.** ***Anderground*** **delako trilogiako atal bat da, eta egiak esaten dituen mozkorrarena egingo du bertan.**

**Eguena (19:00).**



**Kike Amunarriz**

AKTOREA

**Telebista aurkezlea, aktorea, idazlea… da Kike Amunarriz. Oraingoan, Urmeneta eta Olariagarekin batera egingo du hitzaldi bat.**

**Egubakoitza (11:00).**



**Asisko Urmeneta**

MARRAZKILARIA

**Irudigile nafarrak** ***Mantxut?*** **lokuzio bildumak plazaratu izan ditu, Zazpiak Batman taldekoekin, besteak beste, Jon Alonsorekin.**

**Egubakoitza (11:00).**



**Antton Olariaga**

MARRAZKILARIA

***Zakilixut*** **pertsonaiarengatik da ezagunen Olariaga.** ***Hitz aspertuan dibertitzeko manerak*** **hitzaldia egingo du Kikerekin eta Asiskorekin.**

**Egubakoitza (11:00).**

GOIO ARANA

JARDUNALDIAK/ **LAUGARREN LITERATURA ASTEA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN**

# Umorea literaturan, aurtengo gaia

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUMANITATE FAKULTATEAK UMOREAREN GAINEKO HITZALDIAK, ANTZEZLANAK… ANTOLATU DITU

**Laugarren urtez antolatu du Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateak, HUHEZIk, Literatura Astea. Aurten, literatura eta umorea hartu dituzte ardatz, eta horren gaineko hitzaldiak, antzezlanak, errezitaldiak… izango dira Eskoriatzan, joan gura duten guztiendako.**

Apirilaren 22tik 26ra bitartean, biak barne, egunero izango da zer entzun edo zerekin irribarre egin HUHEZIren egoitzan, Eskoriatzan. Idazleak, aktoreak, komikigileak… izango dira hantxe.

**IDAZLEAK HURBILDU**

Geroago eta ekintza garrantzitsuago bihurtu da Literatura Astea. Idazleen eta gizartearen arteko loturak sendotzea, euskal idazleak ezagutaraztea eta irakurzaletasuna bultzatzea ditu helburu ekimen horrek.

LEIRE KORTABARRIA



HUHEZI

**Bernardo Atxagaren hitzaldia HUHEZIk inoiz antolatu dituenen artean arrakastatsuenetariko bat izan da.**

**ARANTZA OZAETA** / ANTOLATZAILEA

## *“Idazleak hurbiltzeak irakurtzera ziztatzen du”*

**Taldelana dago Literatura Astearen atzean. Amelia Barquín edo Karmel Pérez irakasleekin batera, besteak beste, Arantza Ozaeta irakasleak egin du horretan lan.**



**Arantza Ozaeta.**

**Lau urteotan ze harrera egin dio jendeak Asteari?**

Gogoan daukat iaz Bernardo Atxagak egin zuen hitzaldia. Aretoa jendez leporaino bete zen. Orain arte, partaidetza ederra izan da, saio guztietan. Iaz, kaleko jende asko hurreratu zen, eta ikasleak ere bai, jakina. Ematen du astebeteko dinamika aldatzea gustura hartzen dugula.

**Iaz, Espido Freire ekarri zenuten. Gaztelaniaz idazten duen beste egilerik ekartzeko asmorik baduzue?**

Gure plaza euskal literatura erakusteko da, baina beste literatura batzuk ere gustuko ditugu. Denborarekin, Espainiako idazleak ekartzen jarraitu nahi dugu, eta kataluniarrak eta galiziarrak ere bai.

**Esaten da gaur egungo jendea ez dela literaturzaleegia…**

Irakurketa ez da demokratizatu den kontu bat. Esaten du Jorge Jiménezek zerbait ez dugula ondo egin, zeren ikasle batzuk bihurtu ditugu pasiboak irakurtzeko eta beste batzuk hain irakurle onak, ze bigarren horiek iaia idazle ere diren. Tarteko eremua non dago, orduan? Inkestek beti datu politak ematen dituzte… Guk uste dugu idazleak hurbiltzeak irakurtzera ziztatzen duela, ilusionatzen duela.

**Zer deritzozu euskal literaturaren egoerari?**

Bad降itugu izen handiak euskal literaturan, eta gutxiago ezagutzen ditugun beste asko ere. Gure aurtengo helburu bat izen horiek plazaratzea da. Belaunaldi berri bat dago oso gauza interesgarriak egiten. Hauxe da euskal literaturaren “urrezko aroa”.

## Ironia eta fintasuna

**Urtero goiburu bat aukeratzen dute Literaturaren Asteko antolatzaileek. Horretarako arrazoi nagusia da, antolatzaileek eurek dioten moduan, ekimenari “osotasun” edo ildo bat ematea. Aurten, *Literatura eta umorea* da leloa, eta aurtengo gonbidatu guztiak aukeratzeko irizpidea horixe izan da, alegia, guztiek –Jon Alonso, Arantxa Iturbe eta Iban Zaldua idazleek; Ander Lipus eta Kike Amunarriz aktoreek; eta Asisko Urmeneta eta Antton Olariaga marrazkilariek– umorea darabiltela euren obran. “Umorea gai erakargarria da literaturan eta bizitzan. Kuriosoa da, bizi izaten laguntzen duen alderdi bat dela dakigun arren, arreta txikia eskaintzen diogu”, esaten du Arantza Ozaetak, eta akaso horregatik sekula ez da gaizki etorriko umorearen gainean gogoeta egitea. Euskal literatura, oro har, serioa ala umoretsua ote da? “Literaturan umorea egon, badago, eta badira idazle batzuk nabarmenago erabiltzen dutenak. Horietako batzuk dira hurreratzen den edozeinek entzuteko parada izango duena”, gaineratzen du Arantza Ozaetak.**

**Euskaldunok serio ospea daukagu, baina badirudi, alde horretatik, behintzat, lasai egon gaitezkeela, gure literaturan umorerik ez dugulako faltan.**

**Baina umore mota asko dago… Zein umore mota da nagusi euskal literaturan? “Umorea oso gai zabala da, badago poza edo alaitasuna ematen duen umore bat. Eta euskal literaturan badago umore inteligente eta fin hori. Azken hori ironiarekin lotuta dagoen umore bat da, eta irakurle inteligentea eskatzen du, inplizitua interpretatzeko lana egiten duena”. Hortaz, euskaldunak umoretsuak gara ala ez? Hona hemen zer irizten duten antolatzaileek: “Bai, umoretsuak gara, eta orain umore inteligentea behar dugu gure egoerari aurre egiten laguntzeko”.**

UDAKO BRIGADAK 2002

Mexiko, Nikaragua eta Kuba

i

**BERGARA:** 943 76 21 48
**BILBO:** martitzen eta eguakitzetan. 94 479 07 03 (20:00-22:00)
**DONOSTIA:** martitzen eta eguenetan. 943 28 65 04 (19:30-21:30)
**GASTEIZ:** eguenetan. 945 14 93 79 (20:00-23:00)
**IRUÑEA:** eguaztenetan. 948 20 60 55 (20:00-22:00)

Posta elektronikoa: *kibilbo@herriak.org*




KOMITE INTERNAZIONALISTAK

**DISKOAK/ DEBAGOIENEKO HIRU MUSIKARIK DISKO BERRIAK AURKEZTU DITUZTE**

# Soinua, rocka eta punka

MAIXAREN GOXOTASUNA, SEN-EN ROCK ERRITMOAK ETA DES-KONTROLEN PUNK KEMENTSUA, AUKERAN

Debagoieneko talde eta musikariak sarri askotan izaten ditugu berbagai eta protagonista. Eta atsegin handiz, jakina. Izan ere, arrazoi onengatik ditugu beti ahotan. Kasu honetan, euren emankortasun handiarengatik. Izan ere, ibarreko bakarlari batek eta talde bik disko berriak aurkeztu dituzte.

Oso estilo eta ibilera desberdinetako hiru bakarlari edo talde ditugu hizpide oraingo honetan. Hirurak hala hirurak lan berria besapean dutela datoz; hori dute ezaugarri komun. Alde batetik, Maixa trikitixa jotzaile eta abeslaria dugu, Altzon jaioa, baina Mondragoen lan egiten duena; bestetik, Sen taldea, Aitor Uriarte kide oñatiarra duena; eta bestetik, hau bai, mondragoetar peto-petoez osatutako Des-kontrol *punk-oi!* estiloko boskotea.

**GUZTIENDAKO, ETAPA BERRIA**

Lehen begiradan hala ez dirudien arren, zer edo zertan, behintzat, badute antzik bakarlari eta talde hauek. Nolabait, euren disko berriek etapa berri baten hasiera markatzen dute hiru artistendako. Hori oso nabarmena da Maixaren kasuan; Maixa ta Ixiar taldeko kide izatetik bere izen propioz sinatutako lanak sortzera pasatu da; jakina, talde baten lankidetzarekin.

Sen taldeari dagokionez, lehengo kolaboratzaile izan zen Mikel Artiedak utzi egin behar izan zion lankidetza horri, eta Joseba San Sebastian sartu da taldekide finko berri bezala. Sen-ek hainbat kontzertu eskainiko ditu diskoa aurkezteko. Eta kide aldaketarik ez, baina salto kualitatibo handia eman du Des-kontrol *punk-oi!* boskoteak: maketa bat egitetik punkzaleendako disko bikaina egitera.

LEIRE KORTABARRIA




**'SENTITZEN NAIZ'**
**Maixa**
Arrasate

## Barne mundu intimo eta goxoa

Altzoarra izatez, ia-ia arrasatear-tuta dago Maixa Lizarribar abeslari eta soinu jotzailea; izan ere, Arrasateko Trikitilari Eskolako irakasle eta arduraduna dugu. Maixa ta Ixiar taldeko partaide izan zen 1999ra arte, eta orain, bere bakarkako lehenengo lanarekin datorkigu, nahiz eta, jakina, musikari bikainen babesa izan duen Maixak.

Maixa ta Ixiar taldeak egiten zituen doinuekin ez dute hauek "batere zerikusirik", musikariak berak dioenez: "Disko intimista da; publikoari begira ere, lehengo doinuak leku irekietan jotzekoak ziren; oraingoek leku txikiagoak eskatzen dituzte", dio. Emanaldiak egiten hasiko da laster, eta Debagoienean jotzeko asmoa ere badu Maixak.




**'GAIZKI ESANAK'**
**Sen**
Oñati

## Pop-rocka baino, rock-popa nagusi

Emaitzarekin "gustura" geratu direla esaten dute Sen taldekoek, eta ez da gutxiagorako; izan ere, joan zen diskotik hona, aldaketa mesedegarriak izan ditu taldeak. Garrantzitsuena izan da taldea behin betiko finkatu dela, lehengo hirukotea orain laukote bihurtu da-eta, Joseba San Sebastian baxu jotzailearekin. Bestalde, diskoetxe berriarekin argitaratu dute lan hau, Metak-ekin, hain zuzen ere.

Talde berri honek lau hanka ditu, eta sendotasun hori antzematen zaie heldutasuneko disko honetan. Doinu mardulak aurkituko ditugu hemen. Gitarra, melodia eta oinarri erritmiko sendoa dira nagusi. Uriartek dioen moduan: "Lehengo diskoa pop-rocka zen, eta oraingoa, berriz, rock-popa".




**'BEHIN ETA BERRIZ'**
**Des-kontrol**
Arrasate

## Aurrekoa baino disko "serioagoa"

Bigarren diskoa dute *Behin eta berriz* hau Des-kontroleko arrasatearrek, eta, izenburuari kasu egiten badiogu, inoiz baino gogotsuago datozkigu, euren ahotsa eta doinuak alde guztietan barreiatzeko asmoz: "Orain, gure helburua kontzertuak eskaintzea da; inguru hauetan, jakina, eta ea kanpora ere joaten garen", diote *punk-oi!* estiloko talde horretako partaideek.

Aurreko diskoa baino "serioagoa" dela dio boskoteak; "diskoa baino gehiago, maketa bat zen aurrekoa", diote. Uztailean grabatu zuten, bost egunean, eta Madrilgo Potencial Hardcore diskoetxearekin kaleratu dute. "Pozik gaude emaitzarekin; lehengo estiloari eutsi diogu, baina disko hau hobea da", esan dute.

**NIRE AUKERA**




**'UN TRANVÍA LLAMADO DESEO'**
**Elia Kazan**

**Nire film gogokoenetariko bat gomendatu gurako nuke: *Un tranvía llamado deseo*, Marlon Brando-rekin eta Vivien Leigh-ekin, 1951koa. Oro har, zinema klasikoa, sasoi bateko filmak gaur egungoak baino gustukoago ditut; orduan, teknologia handirik ez zutenez, aktoreen lana, istorioa, eta abar, garrantzitsuagoak ziren, eta, nire ustez, baita hobeak ere. Bestalde, ogibidez aktorea naiz, eta horrek ere film hori beste jarrera batekin ikustera lagundu dit; izan ere, hortik ikasi ere egin dut, eta film hori eta zinema, oro har, beste modu baten balorarazten dit horrek.** /L.K.



**Aitziber Zumalde**

Mondragoetarra, 23 urte. Aktorea da, eta denda bat zabaldu berri du Arrasaten.

**KALERATU BERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA** / Hizkuntzaz




**EUSKARAREN GARABIDEAK**

**Jesus Rubio**
Zerberri
165 orrialde

Autoreak hizkuntzaz jardun du *Euskararen garabideak* liburuan, besteak beste, esateko: "Ikuspuntu ekonomiko batetik begiratuta esan dezakegu ezen euskara 'normaltasunez' erabilia izan dadin, aurrena gure hizkuntzak bere ahulezia konparatibo hori sendatzeko behar diren baliabideak garatu beharko dituela." Autorearen ustez, beste edozein kontsideerazio normalizatzaileren aurretik, euskararen sintaxia komunikatiboki garatu behar da, eta horixe da euskalgintzak duen aurreneko arazoa. Gaia sakon lantzen da *Euskararen garabideak* liburuan.

**LIBURUA** / Eleberria




**PULP**

**Charles Bukowski**
Txalaparta
237 orrialde

Egileak, hainbat editoreri esker ona adierazteaz bat, liburuaren eskaintza egiten du: "Idazkera txarrari eskainia". Horixe da Bukowski. Liburua idatzi eta gutxira hil zen, 49 urte zituela. Hortaz, *Pulp* dugu Charles Bukowskiren azken idazlana.

Hamaika herri eta ogibide ezagutu zituen idazle hark. Alkohola, hipodromoa, emakumeak, kalezuloak... izan ditu gai. Edan eta idatzi egiten zuen etengabe, eta horixe egiten utz ziezaioten eskatu zuen behin eta berriz Charles Bukowskik.

Euskaraz irakurtzeko modua ere badugu. Itzulpena: Josu Lartategi.

**DISKOA** / Giroak




**-GAILU KUTXA BELTZA**

**Mikel Abrego**
Metak
5 kantu
5 bideo klip

*Pil-pil Sessions* sail berriaren azpian atera du *-Gailu* Metak etxeak. Giroetatik sortutako diskoa da, Mikel Abregok konposaturikoetatik Luis Andreren bideolanerako. Giroak kantu bihurtu ditu Mikelek hainbat lagunekin batera. Bost kantu daude, bakoitza bere bideokliparekin. Gure urratsak mantsotzen edo azkartzen dituzte, semaforoak gorriz edo berdez jarriaz, gure pausoak jarraitzen dituzte, edo gure lanak, edo asperraldiak, edo... Bilboko kaleetako egun arrunt bat irudikatzen da. Pop kutsukoak batzuk, *down tempo* edo rocka, edo *dub* edo *hip-hop*-a. Baita jazza ere.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko apirilaren 19a

# Apirilak 19-26

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***Marrubizko printzesa*** txotxongilo saioa eskainiko du Gus taldeak hilaren 25ean. Monterronen, 18:00etan.

### OÑATI

► ***Bost kontinenteetako ipuin kontaketa*** izango da bihar, zapatua, Errekalde Herri Eskolan, 17:30ean. Herritar guztiendako.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **Septicemia eta Storbais** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

### ARRASATE

► **Ekon eta Anger** taldeen kontzertua izango da bihar, gaztetxean, 22:00etan.
► **Arrasate Musikaleko Soka Orkestrak eta Gasteizko Luis Aranburu Musika Eskolakoek** emanaldia egingo dute domekan San Juan Bataiatzailearen elizan, 13:30ean.
► **Biolin eta tronboi kontzertua** izango da hilaren 24an, Arrasate Musikalen, 18:30.
► **Brass Pamplona** boskotearen emanaldia izango da hilaren 26an Amaia Udal Antzokian, 20:00etan.

### BERGARA

► **Benito Lertxundi kantautorearen** emanaldia izango da apirilaren 19an pilotalekuan, 22:30ean.
► **Asier Serranok bere lehen diskoa** aurkeztuko du apirilaren 26an gaztetxean, 22:30ean.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► ***Trikitixa ezagutuz*** erakusketa izango da bihar eta etzi Olaran etxean.

### ARRASATE

► ***Ipuinez ipuin*** erakusketa antolatu dute liburutegiak eta Galtzagorri elkarteak Monterronen. Apiril osoan egongo da zabalik.

### BERGARA

► **V. Abdon Juaristi Margo Lehiaketako margolanen** erakusketa egongo da apirilaren 19tik 28ra bitartean kultura etxean.
► **Juxe Areta argazkilariaren lanak** ikusteko aukera egongo da apiril osoan gaztetxean. Musika kontzertuetan ateratako argazkiak dira.

### DONOSTIA

► **Fernando Arenaza margolari bergararrak** erakusketa inauguratuko du alde zaharreko La Colchonerían bihar, zapatua, 17:30ean. Maiatzaren 10era arte egongo da zabalik.

### DURANGO

► **Pello Alberdi artista elgetarraren** hogei olio ikusteko aukera egongo da apirilaren 28ra arte San Agustin kulturagunean.

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Bertso afaria** egingo dute bihar, zapatua, Larrinoko San Kristobal elkartean, Joxe Agirre eta Imanol Lazkanorekin, 20:30ean.
► **Zuberoa Garatzen Topaguneak aurkezpen hitzaldia** egingo du hilaren 24an Murrukixoko lokalean, 19:00etan.

### ARRASATE

► **Arrasate-Aretxabaleta Institutuak** gertu dauzka Batxiler tituluak.
► ***Fikzioa euskaraz*** hitzaldia egingo dute Asier Larrinagak eta Ritxi Lizartzak hilaren 23an Monterronen, 18:30ean.
► **Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketaren gaineko** jardunaldia hilaren 24an San Viator Handin. 18:00-19:30. Bigarren Batxilergoko ikasleendako eta haien aita-amendako.
► **DBHko ikasleen gurasoendako batzarra** antolatu du Arizmendik hilaren 24an Ferixalekuan, 18:00etan.
► **Harkaitz Canoren** poesia irakurraldia izango da eguaztenean Monterronen, 19:00etan.
► **Udako udaleku programa abian jarri du Txatxilipurdik.** Plaza mugatuak izango dira. Izena emateko, jo Pablo Uranga kaleko 6. zenbakira.
► **Abian dago aurtengo guraso tailerra.** Eguenero, Monterronen, 18:00etatik 19:30era.

### BERGARA

► **Xipizaro ludotekak begiraleak behar ditu** udako udaleku irekietarako. Izena emateko, joan ludotekara, apirilaren 30era arte.
► **Zabalik dago udako ludoteka irekietan** parte hartzeko matrikulazio epea. Ludotekan. 10:00-13:00.
► **Emakumearen osasunaren gaineko hitzaldia** izango da hilaren 24an kultura etxean, 19:30ean.
► ***Eske hau superguaya da!*** **hitzaldia** egingo du Kike Amunarrizek eguenean kultura etxean, 19:00etan.

### ESKORIATZA

► **Gaztekantoi 13tik 16 urtera arteko gazteendako topagunea** antolatu du Udalak. Ekainaren 9ra arte iraungo du. Kultura etxean izango da, zapatuetan (17:00-21:00) eta domeketan (17:00-20:00).
► **Literatura Astea** antolatu du HUHEZIk apirilaren 22tik 26ra arte. Joan gura duen edozeini dago zabalik.
► **DBHko ikasleen gurasoendako batzarrak** antolatu ditu Arizmendik Almenen hilaren 23an eta 25ean, 18:00etan. 25ekoa kanpoko gurasoendako izango da.

### OÑATI

► **Palentziako basoak ikusteko,** irteera antolatu du Natura Eskolak apirilaren 27 eta 28rako. Deitu 943 71 64 04 telefonora, 22a baino lehenago.
► ***Pangea I, bidaia kontinenteen hondora*** **izenburupean** diapositiba emanaldia antolatu du Aloña Mendik martitzenerako, hilaren 23rako. Josu Iztuetaren eta Ander Izagirreren eskutik izango da, kultura etxean, 19:00etan.
► **Uztaileko udaleku irekietarako begiraleak** behar dira. Gaztelekura jo, zapatu goizez, edo: 636 24 45 66.



► EMANALDIAK

## MUSIKA HERRIKOIA ETA SORTU BERRIA 'BAR PUERTO' SAIOAN

Arrasate-Aretxabaletako Institutuak antolatuta, Mikel Urdangarin kantautoreak eta Bingen Mendizabal musikariak *Bar Puerto* musika emanaldia ekarriko dute Debagoienera. Jatorrian, literatura, musika eta bideoa uztartzen zituen ikus-entzunezko saio baten moldaketa da oraingo *Bar Puerto* saio hau. Kirmen Uribe idazle ondarrutarraren hitzak oinarri hartuta, musikaz lagundutako irakurketa egingo dute. Portuko taberna baten, hainbat garai eta jatorritako jendea agertzen joango da, eta doinu herrikoiak eta sortu berriko kantuak eskainiko dizkiote publikoari.

**Non:** Arrasateko Amaia Udal Antzokian. **Noiz:** Apirilaren 20an, zapatuan. **Ordua:** 22:30ean.

**INFORMATIKA MONITOREA**

Arrasateko Udalak, INFORMATIKA MONITORE bat kontratatu nahi du, aldi batez, praktiketako kontratu bidez.

**Aurkezteko epea**: 2002-04-20tik 2002-05-02ra arte (biak barne)

**Azterketak:** maiatzaren 13an goizeko 9:00etan Udaletxean

**Oinarriak**: Udaletxean edo web orrian *(www.arrasate-mondragon.net)* jaso daitezke.

ARRASATEKO UDALA — **Pertsonal Saila**

**UDALTZAINAK**

Arrasateko Udalak lan-poltsa bat sortu nahi du, berehala, **HAMAR UDALTZAIN** plaza hornitzeko funtzionario interinoen izaeraz.

**Aurkezteko epea**: 2002-04-20tik 2002-05-02ra arte (biak barne)

**Lehen azterketa:** maiatzaren 15ean goizeko 10:00etan Iturripe kiroldegian.

**Oinarriak**: Udaletxean edo web orrian *(www.arrasate-mondragon.net)* jaso daitezke.

ARRASATEKO UDALA — **Pertsonal Saila**



## PRETTY MAIDS METAL TALDEA JAMEN

Danimarkako talde ezagunenetariko bat, Pretty Maids metal taldea, Bergarako Jam aretoan izango da apirilaren 20an, 21:00etan, Planet Panic disko berria aurkezten. 80ko hamarkadatik honako hainbat kantu arrakastatsu ere joko dituzte.

► **Zabalik dago uztaileko udaleku irekietan parte hartzeko** matrikulazio epea. Interesa dutenek etxera bidalitako orria bete beharko dute, eta Euskadiko Kutxan ordainketa egin.
► **Autoestimuaren garrantziaren** gaia landuko da Guraso Eskolan apirilaren 24an eta 25ean, institutuaren parean, 14:45etik 16:15era.

# IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Hasiera mailako Taila ikastaroa** antolatu du Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Izena emateko, deitu 943 79 40 79 edo 943 79 77 5 telefonoetara.

### OÑATI

► **Joera berrien ikastaroa** antolatu du Kirol Sailak. *Fit bike*, *power dumbell* eta ariketa pertsonalizatuen ikastaroak eskainiko dituzte. *Fit bike* ikastaroak bi hilabete iraungo du; besteak, apirilaren 20an eta 27an. Izena emateko, deitu 943 71 63 75 edo 943 77 91 67 telefonoetara.
► ***Funky-hip hop* saioa** izango da apirilaren 27an. Izena emateko epea zabalik dago. Horretarako, jo Gazte Informazio Bulegora.

# LEHIAKETAK

### ARRASATE

► **Argazki-matematika Lehiaketa** dago abian, Arrasate-Aretxabaleta institutuak antolatuta. Oinarriak, institutuan bertan edo Monterronen.

### EUSKADI

► **Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren gaineko argazki lehiaketa** antolatu du Eusko Jaurlaritzak. Argibideak: 902 11 68 07.
► **Korrika Kulturalerako ikuskizun berria antolatzeko** beka lehiaketa antolatu du AEK-k. Ekainaren 1a da mugaeguna.

### OÑATI

► **III. Oñati Hiria Literatura Lehiaketa** dago abian. 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte. Azken eguna apirilaren 26a izango da.
► **Oñatiko arrantza txapelketa** antolatu dute Alzu arrantza dendak eta Pago-Uso elkarteak apirilaren 21erako Arantzazu errekan. Izena emateko azken eguna apirilaren 20a da, Alzun.

# BIDEOA

### BERGARA

► ***El tercer hombre* filmaren emanaldia** izango da domekan, hilaren 21ean, gaztetxean, 18:00etan.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***Gosford park***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

***Errebelde baten egunkaria***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Una mente maravillosa***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

***La Spagnola***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ **SANTA ANA**

***Falsa identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Monstruos S.A.***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***La ciudad está tranquila***
Eguena, zinekluba: 20:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Blade II***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***La habitación del pánico***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Showtime***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***La máquina del tiempo***
Egunero: 17:30.

***Aventuras en Alaska***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***E.T.***
Egunero: 17:00.

***Ajuste de cuentas***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El embrujo de Shangai***
Egubakoitza eta domeka: 20:00, 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.

***Una mente maravillosa***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***Blade II***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Los Tenenbaums***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Kate y Leopold***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Monster's ball***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Nunca juegues con extraños***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Peter Pan***
Zapatua eta domeka: 17:00, 18:45.

***El embrujo de Shangai***
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 20:15, 22:45.

***Showtime***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Blade II***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Charlotte Gray***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Tangos robados***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***El hombre que nunca estuvo allí***
Egubakoitza eta domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El hijo de la novia***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***Hable con ella***
Egunero: 20:00.

***Cuba***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***Monster's ball***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El pabellón de los oficiales***
Egunero: 17:30.

***Elling***
Egubakoitza eta domeka: 20:00, 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.

***Los Tenenbaums***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***Gosford park***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 22:30.
Zapatua: 17:30, 22:30, 01:00.

■ **STER ZINEMAK**

***La máquina del tiempo***
Egubakoitza eta zapatua: 22:00, 00:00.
Domeka: 22:00.

***John Q.***
Egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:40, 01:05.
Domeka: 20:20, 22:40.

***Kate y Leopold***
Egubakoitza eta zapatua: 17:25, 20:00, 22:35, 01:10.
Domeka: 17:25, 20:00, 22:35.

***Una mente maravillosa***
Egubakoitza eta zapatua: 19:55, 22:25, 01:00.
Domeka: 19:55, 22:25.

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 18:00, 20:30, 22:55, 01:20.
Zapatua: 12:25, 15:35, 18:00, 20:30, 22:55, 01:20.
Domeka: 12:25, 15:35, 18:00, 20:30, 22:55.

***Un padre de cuidado***
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 12:35, 15:55, 18:00.

***Peter Pan***
Egubakoitza: 18:05, 19:45.
Zapatua eta domeka: 12:40, 16:20, 18:05, 19:45.

***Monstruos S.A.***
Egubakoitza: 17:55.
Zapatua eta domeka: 12:05, 16:00, 17:55.

***Nunca juegues con extraños***
Egubakoitza: 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Zapatua: 12:30, 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Domeka: 12:30, 16:15, 18:25, 20:35, 22:45.

***Blade II***
Egubakoitza: 17:35, 20:05, 22:40, 01:10.
Zapatua: 12:15, 17:35, 20:05, 22:40, 01:10.
Domeka: 12:15, 17:35, 20:05, 22:40.

***Showtime***
Egubakoitza: 18:10, 20:10, 22:10, 00:15.
Zapatua: 12:20, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:15.
Domeka: 12:20, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Aventuras en Alaska***
Egubakoitza: 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Zapatua: 12:10, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 12:10, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35.

***Astérix en América***
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:30.

■ **YELMO CINEPLEX**

***No es otra estúpida película americana***
Egubakoitza: 16:05, 18:05, 20:25, 22:20, 00:05.
Zapatua: 12:25, 16:05, 18:05, 20:25, 22:20, 00:05.
Domeka: 12:25, 16:05, 18:05, 20:25, 22:20.

***La máquina del tiempo***
Egubakoitza: 16:05, 18:00, 20:30, 22:25, 00:20.
Zapatua: 12:10, 16:05, 18:00, 20:30, 22:25, 00:20.
Domeka: 12:10, 16:05, 18:00, 20:30, 22:25.

***Falsa identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 21:10, 23:55.
Domeka: 21:10.

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 15:35, 17:45, 20:10, 22:30, 00:45.
Zapatua: 12:05, 15:35, 17:45, 20:10, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:05, 15:35, 17:45, 20:10, 22:30.

***John Q.***
Egubakoitza: 15:30, 17:50, 20:05, 22:35, 00:55.
Zapatua: 11:35, 15:30, 17:50, 20:05, 22:35, 00:55.
Domeka: 11:35, 15:30, 17:50, 20:05, 22:35.

***Aventuras en Alaska***
Egubakoitza: 15:45, 17:45, 19:45, 22:05, 00:05.
Zapatua: 12:15, 15:45, 17:45, 19:45, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 15:45, 17:45, 19:45, 22:05.

***Monstruos S.A.***
Egubakoitza: 15:40.
Zapatua eta domeka: 11:45, 15:40.

***Un padre de cuidado***
Egubakoitza: 15:35, 17:30.
Zapatua eta domeka: 11:55, 15:35, 17:30.

***E.T.***
Egubakoitza: 15:25, 17:55.
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:25, 17:55.

***Monster's ball***
Egubakoitza: 15:20, 17:30, 19:55, 22:20, 00:30.
Zapatua: 11:40, 15:20, 17:30, 19:55, 22:20, 00:30.
Domeka: 11:40, 15:20, 17:30, 19:55, 22:20.

***Ajuste de cuentas***
Egubakoitza: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Zapatua: 12:25, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:25, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Showtime***
Egubakoitza: 16:15, 18:15, 20:20, 22:45, 00:50.
Zapatua: 12:30, 16:15, 18:15, 20:20, 22:45, 00:50.
Domeka: 12:30, 16:15, 18:15, 20:20, 22:45.

***Nunca juegues con extraños***
Egubakoitza: 16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 00:40.
Zapatua: 12:20, 16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 00:40.
Domeka: 12:20, 16:00, 18:10, 20:20, 22:40.

***El embrujo de Shangai***
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:20, 00:45.
Domeka: 20:05, 22:20.

***Peter Pan***
Egubakoitza: 15:50, 17:40, 19:30.
Zapatua eta domeka: 11:50, 15:50, 17:40, 19:30.

***Kate y Leopold***
Egubakoitza eta zapatua: 17:35, 20:00, 22:30, 00:50.
Domeka: 17:35, 20:00, 22:30.

***Blade II***
Egubakoitza: 15:30, 17:50, 20:15, 22:35, 00:55.
Zapatua: 11:30, 15:30, 17:50, 20:15, 22:35, 00:55.
Domeka: 11:30, 15:30, 17:50, 20:15, 22:35.

***El conde de Montecristo***
Egubakoitza eta zapatua: 19:25, 22:00, 00:35.
Domeka: 19:25, 22:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***E.T.:* ●●●●● / *Gosford Park:* ●●●●● / *Monstruos S.A.:* ●●●● / *Hable con ella:* ●●●● / *Una mente maravillosa:* ●●● /**

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

### E.T.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**ZUZENDARIA:** Steven Spielberg.
**AKTOREAK:** Henry Thomas, Drew Barrymore, Dee Wallace.

Hogei urte igaro dira *E.T.* film famatua estreinatu zenetik hona. Urteurrena ospatzeko, zuzendariak, Steven Spielberg-ek, film horri aldaketa txiki batzuk egin ondoren, berrestreinatzea erabaki du. Eta hori berrikusi ondoren, esan dezakegu pasatu diren urteak ez diotela kalterik egin. Spielberg-ek kontatzen digun ipuin kuttun horrek lehengo freskotasuna, xarma eta sedukzio ahalmena gordetzen ditu. Film apala da, ez da batere burrunbatsua, eta erabiltzen dituen teknologia eta efektu bereziak adiskidetasun istorio txiki eta intimo baten zerbitzura daude. Istorioak haurren eta helduen munduak aurez aurre jartzeko balio izango du.

Filmaren momentu ahaztezinenetariko bat amak alabari *Peter Pan*-en ipuina irakurtzen dion eszena da. *E.T.*-k atearen beste aldean liluratuta ikusten eta entzuten du momentu magiko hori. Eta ez da kasualitatea Peter Pan izatea aukeratutako ipuina. Istorio bien gaiak antz handia dute-eta. Spielberg-ek lurretik kanpo etorritako izakiaren istorioa gainditzen du eta mundu berean, batera, bizi diren bi mundu desberdinei buruz hitz egiten digu: bata, haurren eta nerabeen mundua da (familia-



ko hiru seme-alabak); bestea, helduen mundua. Gazteak *E.T.*-rekin mantentzen dituzten harremanen bitartez irudimenaren indarra eta magia, ametsen gaitasuna, eta nahiak errealitatea gainditzeko duten ahalmena erakusten dizkigute. Beste aldetik, helduen mundu hotza ia kontrakoa dugu: bertan errealismoa eta bizitzaren ikuspegi zientifikoa inposatzen dira. Helduak gazteen ikuspuntutik filmatuak daude: kontrapikatuan, hau da, behetik gora, eta agertzen direnean istorio nagusiaren eta osagai mehatxatzaile eta zelatari moduan agertzen dira.

Hori guztia oso ondo osatua dago denetik daukan (komedia, fantasia, drama, ekintza eta sentimenduak) filmean. *E.T.*-k, bere estreinaldian gertatu zen bezala, haurrak eta helduak txunditzen jarraitzen du. *Elliot* eta *E.T.*-ren txirrina (John Williams-en musika distiratsu eta zoragarriaren laguntzaz rekin) hegan egiten hasten direnean, beren indar eta liluratzeko ahalmen guztia mantentzen du.

ANTONIO ZABALA

# 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Soraluze**. Erdialdean etxebizitza salgai. Logela bi, sukaldea, jangela eta trastelekua. Jantzita. Eguzkitsua. 943 75 30 26 edo 606 08 04 62.

**Arrasate**. Agerre kalean 55 m$^2$-ko etxebizitza salgai. Logela bi, egongela… Berrituta eta jantzita. 943 77 12 75 edo 969 70 94 00.

**Arrasate.** Erdiko Kalen 50 m$^2$-ko etxebizitza salgai. 626 71 98 16. Iker.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Almeria**. Paseo Maritimon bi logeladun etxebizitza ematen da errentan uztaila, abuztua eta irailean. Hamabost egun, 600 euro. 649 03 47 20.

**Almeria**. Hiri erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hilabetea, 600 euro. 649 03 47 20.

**Bergara**. Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. 699 18 75 68.

**Peñiscola**. Apartamentua ematen da errentan hondartzatik 100 metrora, aparkaleku eta igerilekuaz.Uztaila, abuztua eta iraila. 943 79 48 82. Toñi.

**Donostia**. Antiguo auzoan etxebizitza ematen da errentan. 656 71 06 09.

**Bergara**. Zubiaurren etxebizitza ematen da errentan. 616 61 09 97 edo 943 76 73 41.

**Benidorm**. Levante hondartzara begira dagoen apartamentua ematen da errentan. 946 80 09 53. Marisa.

**Benidorm**. Ekainetik aurrera, itsasoari begira dagoen apartamentua ematen da errentan. 630 41 84 65.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Eskoriatza**,Aretxabaleta edo Arrasate. Bikote batek etxea hartuko luke errentan. 943 71 52 14.

## 105. ETXEAK OSATU

JATETXEA
Elgetan zabalik dagoen Iñaki jatetxea eskualdatzen da.
943 76 82 83

ARRASATE
Erretiroa hartu behar delako, BELAR DENDA salgai. Bezero finkoak.
943 79 73 54
943 79 27 63

ARRASATE
Kasino elkarteak 184 m$^2$-ko egoitza saltzen du:
Erdiko Kale 42-1.
Interesatuok, Kasinoko egoitzara bertara jo edo jarri harremanetan Kasino elkartearen batzordeko edozein kiderekin.
943 79 20 74

ARRASATE
Funtzionamenduan dagoen LENTZERIA eskualdatzen da.
943 77 10 16

**Bergara**. Pertsona bat behar da etxebizitza konpartitzeko. 616 33 05 46.

**Arrasate**. Zigorrolan pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. 609 13 39 70.

**Arrasate**. Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. 615 75 57 65. Deitu 20:00etatik aurrera.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da ikasleen pisu baterako. Pisua Uribe auzoan dago (Unibertsitatetik gertu). 653 01 43 78. Xabier. (Gauez).

**Arrasate**. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 657 72 90 29.

**Aretxabaleta**. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 943 77 08 69.

**Arrasate**. Makatzena aldean pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 670 59 73 62.

**Aretxabaleta**. Sukaldea erabiltzeko aukera duen gela ematen da errentan. 627 64 27 13.

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 9 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERGARA
ESPERIENTZIADUN MARGOLARIAK BEHAR DIRA BERGARAN
943 76 97 31

BERGARA
NESKA BAT BEHAR DA TABERNARI ETA ZERBITZARI LANAK EGITEKO. (DOMEKETAN, JAI)
943 76 15 59
Bitxorrengatik galdetu

OÑATI
Nekazaritzan, abeltzaintzan, lorezaintzan eta animalia txikiekin jarduten duen Oñatiko denda baten PERTSONA BEHAR DA lan egiteko. Tituluduna izatea edo esperientzia hartuko da kontuan.
656 79 48 15

ARRASATE
NESKA BAT BEHAR DA TABERNA BATEN LAN EGITEKO.
943 79 74 09

**Arrasate**. Pertsona arduratsuari gela emango genioke errentan. 943 79 72 99. Deitu 18:30etik 19:30era.

**Aretxabaleta**. Sukaldea erabiltzeko aukera duen logela ematen da errentan. 943 79 05 26.

# 2/ GARAJEAK

## 201. SALGAI

**Bergara.** Ozaetan garajea salgai. 659 81 61 04.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Burdiñaten garajea ematen da errentan. 943 76 13 33.

# 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Emakumea** gertu bulegoetan garbiketak egiteko. 639 46 50 15.

**Neska** gertu etxeko lanak egiteko eta pertsona zaharrak zaintzeko. 669 04 35 61.

**Arrasate**. Emakumea gertu umeak zaintzeko. Telefonoa: 943 79 13 10.

**Mutil** gaztea gertu pertsona zaharrak zaintzeko edo ostalaritzan lan egiteko gertu. 679 89 37 26. Hector.

**Neska** gertu goizetan orduka lan egiteko. Paperak ditut. 619 83 68 19.

**Neska** gertu etxeko lanak egiteko, orduka edo egun osoz. 656 76 81 61.

**Etxeko** lanak egiteko neska gertu. 943 76 29 52. Deitu 10:00etatik 13:00etara.

**Bergara**. Esperientziadun neska gertu etxeko lanak egin eta atariak garbitzeko. 943 76 38 73.

**Neska** gertu etxeko lanak egin eta atariak garbitzeko. 696 70 55 09. Mari Karmen.

**Neska** gertu garbiketak egin eta umeak zaintzeko. 626 69 05 56.

**Esperientziadun** neska gertu umeak zaindu edo taberna edo atariak garbitzeko. 686 81 46 45.

**Neska** gertu astelehenetik egubakoitzera, arratsaldez, umeak zaindu edo tabernan lan egiteko. 600 58 01 07. Mari Mar.

**Emakumea** gertu etxeak, bulegoak edo atariak orduka garbitzeko. 650 76 77 80. Kamila.

## 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Esperientziadun emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 943 79 71 78. Deitu 21:00etatik aurrera.

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. ESKAINTZAK

**Arrasate**. Laguntza eskolak ematen ditut. 649 22 51 07.

## 502. ESKAERAK

**Arrasate**. Alemaneko eskola partikularrak hartuko nituzke. 650 77 13 22.

**Arrasate**. Ingeleseko irakaslea behar dut.

**Arrasate**. Ingeleseko irakaslea behar da DBHko 2. eta 3. mailarako. 943 79 06 32.

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Land Rover** Discovery salgai. SS-AW. Ondo zainduta. Gehigarriak. 652 77 40 03.

**Montesa** Cota 315 trialeko motoa salgai. 1999. urtekoa. 943 76 64 01 edo 600 29 48 50.

**Honda XR** 600 Supermotard motoa salgai. Oso berezia. 3.900 euro. 68741 52 47.

**Golf CL** 1600 Diesel autoa salgai. 1.081,82 euro negoziagarriak. Saltzeko premia dut. 659 74 10 79.

**Yamaha XI** 600 motoa salgai. 600 euro. 943 79 78 36.

**Citroën BX** turbodiesela salgai. 1.800 euro. Ondo dago. 636 34 71 36. Ritxar.

**Peugeot 106** diesela salgai. Oso ondo dago. 653 01 96 33.

**Aprilia Climber** 280 cm$^3$-ko motoa salgai. 1992. urtekoa. 660 05 04 10.

# 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Behi bi** salgai, txahalekin. 943 76 52 21.

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Nikon FM** 10 argazki-makina salgai, gutxitan erabilitakoa. 943 79 83 33 edo 605 72 75 45.

**Canon EOS** 300 argazki-makina salgai. 29-90 eta 75-300 mm-ko objektiboekin. Irailera arte dauka garantia ofiziala. 420,71 €. 676 14 19 28.

**Dreamcast**-a salgai. Bi mando. Memory Card. 13 joko. 100 eurotan salgai. 943 79 92 48 (Mikel) Eguerdietan deitu.

**Bikoteendako** logela osoa salgai. Urtebete dauka. Egoera onean. 943 79 37 23,

**Ignis** markako hozkailua salgai. Egoera onean eta merkea. 943 79 37 23.

**Bizikleta**. 100 mm-ko ibilbidea duen mendiko RST suspentsioa daukan bizikleta salgai. Ondo dago. Prezio egokia 647 66 45 32 edo 943 76 28 88.

**Koltxoia**. Gutxi erabilitako 1,35x1,85 m-ko koltxoia eta neurri bereko somierra salgai. Biak, 90 euro. 943 65 07 10. Arratsaldez. Patxi.

**Sukaldeko** altzariak, etxetresna elektrikoak eta jangelako mahaia salgai. 943 79 24 59 edo 943 79 13 26.

**Solarium** profesionala, aurpegirako aire eta barrekin, salgai. 652 75 55 13.

**Piragua** ia berria salgai. Merke. 943 79 78 36.

**Ume bikiendako** kotxe-aulkia salgai. 943 79 82 78

## 802. EROSI

